



ARGIA

BANKUEN PRESIOAK ETENIK EZ

**EGUNERO LAU EUSKAL HERRITAR
BOTATZEN DITUZTE ETXETIK**




» LARRUN: ANOETA ESTADIOKO OBREN ATZEALDEA

» ZUBERERA IRAKASTEKO HAUTUA EGIN DUTE BERTAKO IKASTOLEK

» "IJITOO ERRESISTENTZIA ESTRATEGIAK ONDO ETORRIKO LITZAIZKIOKE FEMINISMOARI"





Gomutan

Bilboko Historiaren
atal ezezagunak
Hektor Ortega

Egiten dizkiogun galderen arabera, historiak oso erantzun desberdinak ematen ditu. Liburu honetako egileak Bilboko pasarte eta pertsonaia ahaztuen berri jakiteko itaundu dio. Erantzunak ahoz heldu ziren lehenengoz, Bilbo Hiria irratian. Orain paperean hezur-mamitu dira, besteak beste, Vecuniarren misterioa, Jose Larrañagaren exekuzioa, kargerren greba, espioi nazia, era zaharreko irainak eta isildutako ereserkiak.



AztiHitza

Xahoren Biografikoa
Asisko Urmeneta

1829: Grezia beregain jarri da, Turkiatik askaturik. Hungarian geldiezia da kontzientzia nazionala. 1830: Polonia oldartu zaio errusiar menderakuntzari. Italia altxatu da Austriaren kontra, estatu libre eta batua helburu. Belgika independizatu da Herbeheretatik, errege eta erlijio gora-behera. 1833: Nafarroa abian da subiranía nazionalaren berreskuratzea, probintziak ondoan dituela. Alta, Espainia ez dago prest mendekoaren independentziarik onartzeko.

23 urteko zuberotar aktibistak jarraitu nahi izan dio gerlari lekuaren gainean, eta kronika konplizea idatzi du euskaldunen oldartzea kontatzearen munduari eta geure buruari. Honako biografiko hau agosti Xahoren "Bidaia Nafarroara" obraren adaptazioa duzu. ... adaptazio librea, nola bestela! "Jakintsu eta jakile, Azti eta Belhagile" Agosti Xaho

Dendetan salgai!

Gabonak euskaraz haur eta gazteentzat!

MATRIKULA ZABALIK

www.gazteola.eus

Gazteola*
Haur eta Gazteak

Bilbo erdian

euskara eskola
antzerkia · euskaraz jolasean
sukaldaritza · dj tailerra



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Gaizki erranka
- 7 Ez hanka ez buru
- 8 Ekonomiaren talaian

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Iñaki Martínez de Luna
- 19 Ane Labaka Mayoza
Itxaro Borda
- 20 Irati Elorrieta



AZALEKO ARGAZKIA:
JON URBE / FOKU

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 AZOKA
- 41 KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGÍ-KONTRA:
CLARA PEYA
- 54 BERANDUEGI

Askatasun grina du Silvia Agüerok. Zer maitatu nahi du aske, ordea? Hasteko, bere herria, ijitoen herria. Garbi azaldu du, ijito nazionalista dela "egunero-egunero". DANI BLANCO

SAKONEAN

- 10 | Silvia Agüero: "Ijitoak gara gaur egun nagusi den gizarte ereduarekiko alternatiba apurretako bat" / Danele Sarriguarte
- 20 | Etxegabetzeen boomak 10 urte eta etenik ez / Mikel Garcia Idiakes
- 25 | Igor Meltxor: "Ustelkeria kasuak ateratzean, zenbait alderdi konplexuekin ikusten ditut" / Lukas Barandiaran
- 28 | Maider Bedaxagar: "Zuberotar gazteak bi euskararen jabe dira" / Mikel Asurmendi
- 30 | Frankismoko esklaboak: Jaizkibelgo errepidearen 'trabajadoreak' / Ander Leon Nanclares
- 34 | Gaztaina: merkea, gose-hiltzailea eta osasuntsua / Josu Narbarte eta Eneko del Amo
- 43 | Kubricken unibertsoak xehetasunetatik / Lander Arretxea Bereziartua
- 46 | Aritz Aranburu, Arrotzak: "Guretzat arrakasta da jendearekin konektatzea" / Gorka Erostarbe

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbeláiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Maitane Gartzandia, Txentxo Muñoz.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administratzailea: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus





PANORAMA

Soilik agur

Eta badao egungo euskal musikaren erreferente nagusienetakoa. 40 urteren bueltan gaudenon soinu-bandaren egile nabarmenak. Berri t(T) xarrak dira milaka eta milaka jarraitzaileentzat. "Adierazteko molde berriak bilatuko ditut" dio Gorka Urbizuk, mende laurdeneko ibilbidea osatu duen taldekide bakarrak. Bada, 'betor ardo hori eta topa daigun'. Hutsuneak betetzeko baitira.

Argazkia: Gaizka Peñafiel · Testua: Axier Lopez



“Izan gaitzen realistak. EH Bilduk akordiora iritsi nahi zuen edo Jaurlaritza limitera eraman gero ezetz esateko?”

Joseba Agirretxea



“Ondo dakigu EHBildu, Elkarrekin Podemos eta Alderdi Popularra nola elkartu diren gure datorren urteko aurrekontuari ezezkoa emateko. Hori ez da auzolana”

Iñigo Urkullu



“Penatuta nago gobernuak izan duen jarrerarekin. Nahi genuen 858€ko gutxieneko pentsioa bermatu 2019an, herritarrei legez tokatzen zaiena. Aukera erreala zegoen milaka pertsonen bizitzak hobetzeko”

Maddalen Iriarte



“Eskatu da pertsonen bizitza duina politika publikoen erdian jartzea. Hori, jakina, asko da Urkullurentzat, EAJrentzat eta agintzen dien patronalarentzat”

@jpermach



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Pinudiak oxido kuprosoz ez fumigatzea eskatu dute medikuek

Argia

1895ean sorturik 120 urte baino gehiago dituen BMZA Bilboko Mediku Zientzien Akademiak Euskal Autonomi Elkarteak agintariei eskatu die ez dezatela oxido kuprosozko fumigaziorik erabili gaitzak jotako pinudien gainean, lekuko herritarren osasuna eta ingurumena kaltetuko dituelako. Administrazioari eskatu diote basogintza iraunkorrako baterako trantsizioari ekin diezaiola. Aldi berean, hondamendiak jo dituen pinuen jabeek BMZAK ohartarazi ondoren pestiziden erabilera kontrolik gabeak herritarren artean ezinezona pizten duela, gogora dakar ikerlan askok erakutsi dituztela botikok giza osasunaren gain dakartzaten kalteak. Bilboko medikuek zehazki nabarmendu dute Frantziako Osasunaren eta Ikerketa

medikuaren Institutu Nazionalak berretsitu duela pestizidok minbizien eta bestelako gaixotasunen ugaritzearekin zerikusia dutela.

Gaineratu dute fumigazio hau Europako Parlamentuak salbuespen batzuetan baino ez duela baimentzen, beti ere inguruan jenderik bizi ez den parajeetan; EAE bezalako herrialde biztanlez bete batean azken baldintza hau ez da, noski, betetzen. Horregatik uste dute medikuek pinudiak airetik oxido kuprosoz fumigatzeak erremediorik gabe eragingo diela bertan bizi diren pertsona eta animaliei bezala urari, aireari eta ingurumenari.

BMZAK bereizten ditu oxido kuprosoa modu mugatuan erabiltzea –tomateak edo mahastiak tratatzeko, esate baterako– eta modu masibo eta indiskriminatuan zabaltzea. Bigarren kasuan, inguruko organismoek barneratu dezakete eta gainera fumigazioen ondorioak pilatu egiten dira.

“Federazioko kideek argi utzi dute eskubide osoz sartzeko eskaera egin nahi diotela UEFari eta FIFari”

LUIS MARI ELUSTONDO, EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Euskal selekzioaren ofizialtasuna eskuratzeko lehen urratsa eman du Euskadiko Futbol Federazioak. Ohiko Batzar Nagusian erabaki dute FIFAn eta UEFAn eskubide osoz sartzeko eskaera egitea. Eskaeraren alde azaldu dira bozketan parte hartu duten 44 kideetatik 43. “Baiezkoak irabaztea espero nuen, baina ez hain modu garbian”, adierazi du presidentea. Espainiako Federazioarekiko mendekotasuna handia izanik, abiatu den prozesua luzea izango dela gaineratu dute. **2018-12-13**



GAIZKI ERRANKA

Gertatu izan balitz



Santi Leoné
@ororostorm

Jendetza bildu zen joan den larunbatean, Iruñean, Skolae programari intsumisioa adierazteko manifestazioan. Hala erran zuen bederen *Diario de Navarra*k, argazkirik ez zekarren albiste batean. Twitterren, berriz, argazkiak badira, baina naski manifestazioaren ondokoak dira, jendetzak alde egin eta guardasolen azpian guti batzuk gelditu zirenekoak.

Normala den bezala, guziei ez zaie gustatu UPNk eta PPNk babestu duten manifestazio hori; nik, berriz, aitortu behar dut lasaiago nagoela. Lasaiago, zeren hain nonbre handian bildu badira programa batek izan litzakeen ondorio kaltegarriak salatzen (ondorio horiek haien irudimenean baizik ez egonda ere), zer ez lukete eginen egiazko izugarrikeriaren bat gertatuz gero?

Normala den bezala, guziei ez zaie gustatu UPNk eta PPNk babestu duten manifestazio hori; nik, berriz, aitortu behar dut lasaiago nagoela

Balitzko adibide bat emate aldera: bertzeak bertze adingabeen heziketaz arduratzen den erakunde baten eskola batean ikasle batek irakasle baten sexu gehiegikeriak salatu izan balitu, baina eskola horrek zernahi egin izan balu biktimaren sinesgarritasuna zalantzan jartzeko; eta hainbat psikologok biktimaren kontakizuna egia dela berretsi ondotik eta epaile batek irakasle hura kondenatu ondotik, eskola tematu izan balitz irakaslearen errugabetasuna defendatzen; eta kondenaturiko pederastaren alde eskolako zuzendariak ez ezik, erakunde bereko unibertitate bateko irakasle batek ere idatzi izan balu; hori guzia gertatu izan balitz, erran nahi baita hori guzia programa batek ekar litzakeen izugarrikeria ez, baizik eta benetan gertatu den izugarrikeria balitz, seguru nago joan den larunbatean bildu zen jendetzak eta bi alderdiek berehala eskatuko zuketela, asaldaturik, adingabeekin lan egin arren pederastia eta abusuak hain manera friboloan tratatzen dituen erakunde horren aitzinean intsumisio izateko eta laguntza guziak kentzeko.

Hori guzia gertatu izan balitz. ■



ANALISIA



Jaka horiak eta ideologiak



Mikel Asurmendi

@masurmendi

Gilets Jaunes du jatorrizko izena. Fenomeno eta espresio sozio-politiko berria da. Jaka edo Txaleko Horiak izendatu ditugu euskaldunok. Frantziako Estatu inarrosi du, baita Errepublikaren baloreak ere. Olde hori batek Hexagonoaren kolore gorri-txuri-urdina estali du bospasei astez.

Ideologiak koloretan bereizi ditugu antzinatik. Monarkia, koloregabea, euren odolaren urdinak bereizi izan du. Urdina da, hartara, eskuindarren kolore bereizgarria. Gorria ezkerren kolorea da. Beltza, berriz, anarkistena. Berdea, ekologistena. Zientziaren aurrerapenak eta teknologiarren garapenak koloreak marguldu dituzte, baita ideologiaren koloreak ere.

Iraganeko ideologiaren kolore solidoa urtzu joan da eta likido bihurtu. Ezein ideologiaren estandarteak nekez airera dezake kolore bakar bat duintasunez. Mugimendu feministaren kolorea moxia da egungo kolorerik esanguratsuenak, salbuespena apika. Oro har, kolore zuria da eskuindar eta ezkeriar klasiarren ideologia hobekien ezaugarritzen duena. Egungo ideologiak, abantzu guztiak, zuriak dira, hots, hipokritak.

Gure historia berriaren ideologiaren, kolore horia ez da zuritik arrunt

ezberdindua izan. Gogoratu ditzagun iraganeko sindikatu horiak, enpresariaren menpekoak. Espainia aldean *sindicatos amarillos*, Frantzia, *syndicats jaunes*. Bada, hauxe paradoxa: *Syndicalisme jaune* Frantzia sortu zen XVIII. mendearan amaieran.

Jaka Horiak mugimendua berezia da, berezia denez, jendartearen adierazpide berria. Errebolariak izan gabe, ia guztiok jantzi dugu inoiz jaka horia, hau da, errepideko zirkunstantziak direla medio legeak janztera behartuta egon gara.

Fenomenoa bitxia da inondik ere. Teorian enpresa boteretsuek egungo norbanakoak –masa-sozial bereziak– kontrolatzen dituzte sare sozialen bitartez, eta paradoxikoki hau ere, sare sozialek posible egin dute egungo errebolta.

Frantziako Estatuak, Macron buru, ez du mugimendua aintzat hartu nahi, Jaka Horiak ez baitaude ezein alderdik ez sindikatuk kontrolatuta. Mugimendua ez da egungo demokraziaren arauen barnean ari. Areago, errebolariak, alde edo moldez, estatuak “aintzakotzat” hartzen duen lengoia bakarra, bortxaren lengoia dela demostratu dute –errebolariak, berriz ere–. Tamalez, historia errepikatzen da. Alabaina, ez da beti modu berean errepikatzen. Gaur egun, inork ez daki mundu berriaren bilakabidearen berri. ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Mobilizatzea beti da eraginkorra



Juan Mari Arregi

Ez dira gutxi uste dutenak langile eta herritarren mobilizazioek, grebek, okupazioek, baraualdiek, itxialdiek... ez dutela ezertarako balio. Eta argudio horri helduta, justifikazioa aurkitzen dute antolatu ohi diren mobilizazio edo grebekin bat ez egiteko edo kalera ez ateratzeko euren eskubideak aldarrikatzera. Ez da horrela. Greba egitea, nonbait ixtea, enpresak eta instalazioak okupatzea eta kalean manifestatzea, azken batean mobilizatzea, beti da eraginkorra. Ez soilik gure duintasuna babesten dugulako, epe motzera nahiz luzera begira helburu eta aldarrikapen asko ere lortzen direlako baizik.

Azken garaiotan, hainbat mobilizazioaren artean, pentsionistena nabarmentzen ari da Hego Euskal Herria eta Espainiako Estatuan, baita Jaka Horiaren mugimendua ere Ipar Euskal Herria eta Frantziako Estatuan. Pentsionisten kasuan, gobernuak mugiarazi dituzte: pentsio baxuenak igotzeaz gain, besteen eros ahalmena eguneratu behar izan dute. Euskal pentsionistek dagokienez, askoz urrunago joan dira eta ia lortzekotan egon dira euren pentsioak osatzeko oinarritzko igoera bat. Baina EAJ eta EH Bilduren arteko negoziatioak hautsita, 2018ko EAERako aurrekontuen luzapena etorriko da. Egoera horrek pentsionistak bultzatuko ditu beren mobilizazioak biderkatuz, joan den asteburuan egin zuten moduan. EAJ eta EH Bilduren arteko tentsioa mobilizazio horiek sortu dute, hain zuzen. Jaka Horiaren, berriz, Frantziako Gobernuak presidenten Emmanuel Macronek 100 euroko igoera egin behar izan du gutxieneko soldatan, baita beste neurri batzuk hartu ere, nahiz eta oraindik ez dakigun nahikoak izango diren tentsio sozialek baretzeko.

Mobilizatzea, bai, beti da efikaza. Ez ordea eskirola izatea edo etxean geratzea eskuak gurutzatuta, besteak kalean dauden bitartean. ■



IRANTZU PASTOR

Agur Info7

URRUÑA. Urriaren 15ean jakinarazi zuen Info7 irrati libreak hamahiru urtetan euskara hutsean dialean aritu ostean emititzeari utziko ziola eta azken bi aste hauetan programazio berezia izan dute eskuartean. Tartean herri harresien zuzeneko emanaldia oroitu dute, baita bertso txapelketen jarraipenak ere –irratigintzako lehenak izan ziren bertsoak zuzenean ematen–. Orotara 400 bat kolaboratzaile inguru izan ditu Info7k. Abenduaren 15ean, saio berezia egin zuten Urruñan eta emisioak amaitu zituzten. Laster aurkeztuko dute irrati berria.

Feministaldia, bide okerren elkargune

Amaia Lekunberri Ansola

@amaialekunberri

Parte-hartze handia izan du Donostian burutu den Kultura Feminista jaialdiaren XIII. edizioak. Plazandreak eta Tabakalerak elkarlanean antolatutako jaialdiak bertoko artista eta sortzaileengan “foku berezia” jarri du aurtengoan. Euskal Herriaz haragoko gonbidatuak ere izan dira.

Okerrak

“Okerrak” izan du goiburua aurtengoak, “bazterrei, besteei, hegemoniatik ihes egiten duten horiei” omenaldi eta gorazarre gisara. Sorkuntza arloan “bide okerrak” hautatu dituztenak izan dituzte ardatz.

Zorrak

Anari, Mursego, Saioa, Lorea Argarate & Ines Osinaga, Birkit, Mice, Ezusteko Band eta Dj Set artistek jaialdirako propio sortutako *Zorrak* ikuskizunak eman zion itxiera jaialdiari, Donostiako Le Bukowski aretoan.

Talka

Donostian jaialdia ixten ari zirela, Gasteizen espazio feminista okupatzen ziharduten. Talka eman diote izena Alava-Velasco jauregiari, zeina aurrerantzean feminismotik “sistemaren arrakala sortzeko” erabiliko den.

DEMOGRAFIA



%2,1

egin du behera migrazio-tasak EAEn, iazko urtariletik aurtengora. Eustatek eman ditu datuak, beste behin migratzaile uholdearen diskurtsoa gezurtatuz.

%7,2

jaitsi da jaiotza-tasa lehen sei hilabeteetan EAEn. Kontrara, iaz baino %1 heriotza gehiago zenbatu dira.



SEXU ERASOAK

Hiru emakumez abusatzea egotzita abade bat kargugabetu du Bizkaiko Elizak. Euskalerriko Eskautak mugimenduko kide ziren emakumeak eta abadea. Bilboko Gotzain nagusiak abusuen berri jakin orduko ikerketa ireki eta salaketa ipini zuen. Kasua Bizkaiko Fiskaltzaren esku geratu da.



TIROKETA

Estrasburgo erdialdean gizon batek abenduaren 11n egindako tiroketaren ondorioz, gutxienez bost dira hildakoak. Frantziako Gobernuak kontrolak areagotu zituen hurrengo egunetan eta erasotzaile gisa identifikaturikoa hil zuten poliziek.



OSAKIDETZA

EAJ, PSE eta PPeren botoek atzera bota dute Eusko Legebiltzarrak ikerketa-batzordea osatzea, Osakidetza lan eskaintza publikoan izandako iruzurra ikertzeko.

«Ijitoak gara gaur egun nagusi den gizarte ereduarekiko alternatiba apurretako bat»

Silvia Agüero

Kamipnasqo Mestipen

Irakurri duzue, baina ba al dakizue zer esan nahi duten hitz horiek? Romani hizkuntzan, *kamipnasqo mestipen* esaten zaio maitatzeko askatasunari. Eta askatasun grina hori du gure gaurko protagonista Silvia Agüerok sare sozialetan ikur. Zer maitatu nahi du aske, ordea? Hasteko, bere herria, ijitoen herria. Garbi azaldu du, ijito nazionalista dela “egunero-egunero”. Etenik gabeko aldarrikapena.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Dani Blanco

Diozu ijitoa, mestizoa eta feminista zarela, eta galdetu nahi dizut nolatan iritsi zaren hiru identitate horiek aldarrikatzera.

Dena da bat. Askotan galdetu didate ea gehiago sufritzen dudan emakumea naizelako ala ijitoa naizelako, baina, hara, ezin dut nire burua hiru zatitan banatu. Ijito gisa aurkezten dut nire burua hala naizelako, eta mestizoa naizela diot, berriaz, Hitlerren eta arraza-araztasunaren kontu hori gainetik kentzeko. Mestizoa naiz benetan, baina, bestela ere, ez dakit ziur nire odola zenbatean den ijitoa. Aurreko batean transfusio bat egin zidaten eta ez dakit odol hura ijitoek ala *payoek* emana zen, beraz...

Erakusten duzu zein absurdua izan daitekeen arraza “neurtzeko” grina hori.

Gutziz absurdua da, bai. Hitlerrek hala egiten zuen: hamaseiren batean ijitoa bazinen, alegia, zure birramona ijitoa bazen, aski zuen zu gas-ganberara bidaltzeko. Pentsa!

Eta feminista?

Nola ez bada! Gainera, feminista ijitoa eta mestizoa. Bizi garen gizarte honetan ez dago besterik, biei egin behar diegu aurre: patriarkatuari eta ijitoen aurkako arrazakeriari, anaiak dira-eta. Ez dezagun ahaztu. Ezin gara ibili nor bere aldetik borrokan, aliantzak behar

Silvia Agüero Fernández

Vallecas, Madril, 1985

Aktibista eta bere etxeko langilea. Hainbat komunikabidetan idazten du, besteak beste, *Eldiario.es* eta *Pikara Magazinen*. Badu blog bat, *Pretendemos gitanizar el mundo*, Nicolás Jiménezekin batera. *Revolución de las Rosas Romani* mugimendua hauspotzen du, indarkeria etno-obstetrikoren kontra.





ditugu, zeren bi piztia ar dira, anaiak, elkar elikatzen dute. Ez dugu patriarkatua deuseztatuko soilik patriarkatuari erasotzen badiogu.

Diozu ghettoan deskubritu zenuela ijito-izaera eta, handik kanpo, berriz, ijitoen aurkako jazarpena.

Halako klak batzuk izan ziren. Uste dut denoi gertatu zaigula, feminismoarekin ere bai: bat-batean zerbaitek klak egiten dizu eta konturatzen zara gertatu zaizun hori zugandik harago doala, eta sus-trai sakon-sakonak dituela. Ni *payo*ekin hazi eta bizi izan nintzen luzaroan, ondoren 5 urtez egon nintzen ghettoan eta han deskubritu nuen nire ijito-izaera, han deskubritu nuen ijitoen gizarte-egitura, nola antolatzen garen, nola hazten ditugun haurrak... Ijito-izaera on hori guztia topatu nuen. Ijito gisa identifikatzen ninduten, lehen ez bezala.

Eta gero?

Gero, ghettotik atera nintzen, pertsona batek lagundu zidalako, horregatik eta atera nahi izan nuelako, noski, baina laguntzarik gabe ez dago handik ateratzerik. Orduan, handik kanpo konturatu naiz benetan zer esan nahi zuen ghettoan egoteak eta zelako sufrimendua zekarkidan. Indarkeria matxistarekin ere halaxe gertatzen da, edozein izanik ere: hortik ateratzen zarenean ikusten duzu benetan zenbat jasan duzun.

“Ijito-izaera on hori guztia” topatu zenuela esan duzu. Zertan datza?

Egia esan, ez dago parte onik eta parte txarrik. Batetik dago *payo*en iruditegia eta bestetik ijitoen benetako erreali-

tatea; horra hor alde bakarra. *Payo*en iruditegian, emakume ijitoak dira mendekoak eta gizonak matxistak; zikinak gara, hurrei ez diegu mukirik garbitzen... Halako ergelkeriak. Ijitoen errealtatea da, ordea, instituzioek ghettoak sortu dituztela eta han metatu gaituztela.

Duela gutxi idatzi duzu ghettoaz. Hauxe diozu: “Ijito gehienok ghettotan bizi gara, eta ghettoak, finean, ijitoen aurkako hirigintza-politika baten emaitza dira: ijitoak isolatzen, urruntzen eta pilotzen dituzte, haiek hobeto kontrolatzeko, eta gainerako hiritarrak lasaitzeko”.

Jendeak uste du ijitoak ghettotan bizi direla hala nahi dutelako, laguntzak ematen dizkietelako, eta ura dohainik, baina ez da hala. Etxeak eraikitzen dituzte, nola-hala, eta han sartzen gaituzte, zeren penintsula honetan ezin zara karabana batean bizi; aukera bakarra duzu: pisu bat erosi edo alokatu, eta kito. Eta nik ez dut halakorik nahi, nik ez dut hipotekarik nahi, eta egunean 16 ordu egin lanean. Sarritan esaten didate ijitoek ez dugula lanik egiten, eta hauxe erantzuten diet: eskerririk asko. Izan ere, ez dugu eredu hori nahi; saldu egin digute.

Honezkeru bizpahiru aldiz aipatu duzu ijitoen aurkako arrazakeria, beraz, hel diezaiozun. Zer da?

Arrazakeria era bat da, eta *payo*en arrazaren nagusitasunaren ideologia du oinarri. *Payo*en antolakuntza-ereduak inposatzen zaizkie beste herri guztiei, hala politikan nola kulturaren, eta egiturazkoa da, gizarteko egitura guztietan dago. Aurreko batean esan nuen gizon

ijito aberats batek eta emakume ijito pobre batek berdin pairatzen dutela ijitoen aurkako arrazakeria, eta sekulako egurra eman didate hori esateagatik, baina hala da. Jakina, bidegurutzek daude, badira patriarkatua, aporofobia eta abarrak, baina ijitoen aurkako arrazakeria hori egiturazkoa da, instituzionala, sistema *payo* kapitalista patriarkalak bultzatzen du, eta gizon ijito aberatsari ere eragiten dio.

Erreparatu diezaiozun bidegurutze horietako bati: emakume eta ijito. Eraso espezifikorik jasotzen duzue?

Bai, ijitoen aurkako arrazakeria patriarkala deritzo. Batzuek genero-ijitofobia deitzen diote, baina niri ez zait gustatzen. Ijitofobia fobia bat da, hots, ijitoei nazka edo gorrotoa, baina ez du boteririk legeak ezartzeko. Ijitoen aurkako arrazakeria, ordea, sistema bat da, patriarkatua bezalaxe. Orduan, ijitoen aurkako arrazakeria patriarkalak propio eragiten die emakumei. Adibidez, Hezkuntza ministroaren arabera, ijito amon errua da gure haurren eskolako porrota. Baina ministroak agian pentsatu behar luke haren ardura dela, irakasle arrazisten eta ijitoen aurkako sistemaren ardura, oro har. Hezkuntza Ministerioaren datuen arabera, ijitoen %67k egin du porrot eskolan. Haur guztien %67a balitz, ministroak bilerak antolatuko lituzke, batarekin eta bestearekin hitz egin, eta hezkuntza-komunitateko kideek pentsatuko lukete zerbait gaizki egiten ari direla, eta saiaturiko lirarteke konpontzen. Baina haur horiek ijitoak direnez, guri botatzen digute errua, amoi.



Osasun-zentroetan ere jasaten duzue arrazakeriarik, ezta?

Bai, instituzio medikua arrazista da eta saiatzen dira gu antzutzen, gu konbentzitzen. Hormonak eskaintzen dizkigute, ez gaitezen haurdun geratu, zeren, jakina, zer egingo dugu hiru haurrekin? Hara, bada hiru haur eduki nahi badituz, nire ardura da, ez ditu hark heziko ezta? Neuk heziko ditut, guk. Eta ez da soilik osasun-sistema, arrazakeria horren eragile dira, orobat, gizarte-zerbitzuak, polizia eta justizia-sistema. Gizarte-zerbitzura bazoaz eta han eskatzen baduzu dena delako hiritan bizitzeagatik dagokizun diru-laguntza, galdezka hasten zaizkizu ea zenbat haur daukazun, eta zergatik daukazun hainbeste, eta hainbeste haur edukita ea nola hazten dituzun, eta abar. Aitzitik, emakume *payo* batek hamar haur baldin baditu, Opus Deikoa da, eta ez dago inongo arazorik. Edo, beste muturrera joanda, emakume *payo* batek lau haur baditu, eta metodo alternatibo baten bitartez hazten baditu, eta ez baditu eskolara bidaltzen *home schooling* egiten duelako, eta ez dakit zer, itzela iruditzen zaigu.

Ijitoen aurkako arrazakeriari buruzko artikulua idatzi duzue Nicolas Jimenezek eta biek, eta adibide-zerrenda luzea osatu duzue, azalduz nola gauzatzen den hori Espainiako Estatuan. Adibideetako askok legeekin dute zerikusia: esate baterako, ijitoen herriaren aitortzarik eza.

Bai, edo beste adibide bat ematearren, gure bandera ere ez dute aitortzen. Zer gertatzen da Espainiako bandera bat errez gero? Kartzelara zoaz, *etarra* zara. Ijitoen bandera errez gero, ordea, ez da ezer gertatzen: erre dezakezu, eta sareetan zabaldu, eta ez da ezertxo ere gertatuko. Sekulako aitortza falta da hori, eta ez da soilik Espainian gertatzen, hemen ere ez da aitortzen gure bandera. Eta, nire ustez, hemen... Tira, ez dizuet nik esango nola egin behar dituzuen gauzak, baina, bestelakoak izan nahi badugu, bestela egin behar dira gauzak.

Hemen sentsibilitate handiagoa izan behar genuke?

Jakina, hizkuntza dela-eta, identitatea dela-eta... Hemen biziko banintz EH Bil-dun militarituko nuke, herrien aitortzaren alde. Uste dut hemen aliatu handiak izan ditzakegula.



**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



ogiarene egia

**Galparsoro
OKINDEGIA**

*Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak*

Kale Nagusia 6 (Aldo Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

GOGOETA PERTSONAL BAT: BEGIRADA GARBITU

AGIFUGI elkarteak gonbidatuta etorri zen Silvia Agüero Donostiara pasa den azaroan. Elkarreak, gainera, eskuzabal laga zion bulegoa erabiltzen kazetariari, eta goxo egin genuen elkarrizketa, hamaiketako eta guzti. Arratsaldean, hitzaldia eman zuen Agüerok Koldo Mitxelena Kulturunean, sistema *payo* patriarkalaz, eta elkarrizketan bezalaxe salatu zuen ijitoen aurkako arrazakeria solasaldi publikoan ere: adibideak eta datuak emanez, egonarriz eta umorez. Galderen txandan, ordea, bi gizon *payok* hitza hartu, eta hitzaldian bertan salatutako estereotipoak nagusitu ziren. Eskerrik ere eman gabe, eta zakar, Agüerori galdetu zioten: 1) ea, gaur egun, XX. mendean, 2018an, ijitoen

ezkontzetan birjintasanaren proba egiten ote dieten oraindik ere emaztegaiei eta 2) ea ijito neskek tradizioen batengatik-edo izaten ote dituzten haurrak beren mutil-lagunekin hasi eta urtebetara. Esan beharra dago txukun erantzun ziela bie Agüerok: zorrotz eta errespetuz. Hortik harago joanda, ordea, hizlariak hitzaldiaren amaiera aldera esan zuen zerbait azpimarratu nahi luke kazetariak hemen: ijitoen aurkako arrazakeria sendatu daitekeela esan zigun, bai horixe, matxismoa senda daitekeen moduan. Horretarako, begirada garbitu behar da, nork bere baitara so egin eta behar adinakoak aldatu, parekoa aurreiritzien lanbrorik gabe ikusteko. Badugu zer egina.

Ijitoen aurkako arrazakeria sistemikoa ez da atzoko kontua Espainiako Estatuan. Zuen artikulutik hartu dut datu hau: "1749an, gaur egun genozidio-saiakera deituko genukeen zerbait gertatu zen: preso hartu zituzten ijito guzti-guztiak; gizonak, emakumeak eta haurrak. Gizonak marinako armategietara bidali zituzten, behar egitera, eta emakumeak, berriz, miseriakordia-etxeetara, haiek ere lanera". Bizirik iraun duzue, baina. Zer erresistentzia-estrategia baliatu duzue?

Galderari heldu baino lehen beste kontu bat aipatu nahi dizut. 1749an sarekada handi-handi bat egin zuten ijitoen aurka Espainian. Euskal Herrira apur bat berandua- go iritsi zen, baina agintariak sarekada egiteko gutuna jaso zutenean, hauxe erantzun zuten: baina zertarako egingo dugu sarekada, hemen jada ez da-eta ijitorik geratzen! Euskal Herrian sekulako garbiketa etnikoa egin zuten, beste toki batzuetan baino askoz latzagoa.

Hori esanda, sarekadaren garaian erresistentzia handia egin zuten ijitoek; eta emakumeek berebizikoa egin zuten. Jakina, dokumentatu dena baino ez dugu jaso. Manuel Martínez *payoa* ibili da hori ikertzen, eta aliatu handia denez, datuak pasa ohi dizkit. Estatu osoan atxilotutako emakume ijitoak hiru miseriakordia-etxetan bildu zituzten: Zaragozan, Katalunian eta Denian.



Eta Zaragozako emakumeek sekulako erresistentzia egin zuten. Mezetara eta gaixoak garbitu eta zaintzera behartu nahi zituzten, eta haiek, orduan, arropa txiki-txiki egin eta biluzik ipini ziren. Denetatik egin zuten. Erresistentzia-estrategia ugari dauzkagu, eta oso ondo etorriko litzaizkioke feminismoari, beraz, badakizue!

Hainbat mediotan ari zara idazten, eta ijitoen aurkako arrazakeria salatzen. Nola hartu zaituzte irakurleek?

Oso ondo. Badakit azkenaldian gogor samar aritu naizela, baina erraietatik

eta bulkadei jarraika idazten dut. Zerbait min egiten didanean idazten dut, eta ezin dut idatzi, idatzitako hori sentitu gabe. Ez naiz kazetaria; iritzi-artikuluak idazten ditut, eta batzuetan pentsatzen dut agian patxada handiagorekin idatzi behar nukeela, iruditzen baitzait aliatuak izan gaitzkeela eta izan beharko genukeela. Baina, beti leporatzen didate gauza bera, eta aspertuta nago. Beti esaten didate: ez zarete integratzen. Eta nik erantzun nahi dizuet: eskerrik asko, laudorioa iruditzen zait. Izan ere, alternatiba bat gara, gaur egun indarrean den gizarte-ereduarekiko alternatiba apurretako bat, eta nahi dut ezkerrek eta feminismoak aliatutzat har gaitzate, bai eta independentismoak ere, oso borroka garrantzitsua iruditzen baitzait, ni neu nazionalista ijitoa naiz. Asko dago ikasteko, eta aliatu izan gaitzke, eta zapaltzen gaituen sistema honen aurka elkarrekin borrokatu.

Amaitzeko, galderei buruzko galdera bat. Egin dituzu elkarrizketa batzuk: ba al dago inoiz galdetu ez dizuten eta gustura erantzungo zenukeen ezer?

Hara, gustatuko litzaidake neuk egitea elkarrizketa bat *payo* bati eta halakoak galdetzea: zergatik zapaltzen nau sistema *payoak*? Zergatik da halakoa sistema *payoa*? Ez al duzu uste alternatiba bat eraiki beharko genukeela? ■

Voxkatu

Andaluzian Vox bozkatu dutenak ez dira lau katu, laurehun mila dira. Ez dira lau katu, eta ez ziren lehenago ere. Muturreko eskuina ez da oraingo asmakizun berria Espainian. Horietako asko, zerbait izatekotan, katu momifikatuak dira, urteek aurrera egin arren euren jarrera fosilizatuei tinko eutsi dietenak.

Alderdi Popularra izan da orain arte gordelekua. Aterpe eman die, baina beti kamuflatuta: barnean, botere handiarekin; publikoki, bigarren mailan. Label demokratikoa lortzeko eta Trantsizioaren gezur handia ezkutuan mantentzeko idearioaren zati bat edulkoratuta azaldu dute azken hamarkadetan. Agintari frankistak alderdiaren eta estatutu aparatuen buru izatera zuzenean pasatzearen faktura.

Egia da, muturreko eskuindarren gorakada gero eta globalagoa da, ezin da errealtatea hainbeste sinplifikatu betiko frankistak direla esanez. Voxi babesa eman diotenen zati bat, beste toki batzuetan (Europako beste herrialdeetan, Ameriketako Estatu Batuetan, Brasilen...) bezalaxe, politikaren eta politikarien deslegitimaziotik eta erakundeak jendartearen arazoak kudeatzeko erabat antzu ikustetik dator. Horrek bidea laua uzten die balore atzerakoiaren bidez soluzio "errazak" proposatzen dituzten ahots populistei. Espainiako kasuan, ordea, diktadurako urteetatik (eta, are, aurretik) gaurdaino bizi-bizirik iritsi den identitate-erakuntzak pisu handiagoa duela esango nuke.

Horiek horrela, zergatik azalera-tu da orain eta ez lehenago? Arrazoi ezberdinak dira medio, baina, laburbil-duz, orain ikusi dutelako euren ideia protofaxistak inolako konplexurik



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Faxismoa esnatzearen errua katalanena omen da. Edo feministena zen? Biak ala biak irakurri edo entzun ditugu, eta batean zein bestean, mekanismo lotsa-emangarri berari erantzuten dioten baieztapenak dira. Jendarte justuago bat lortzeko borroka legitimo batek indarra hartzen badu, horrek faxismoa esnatzen du

gabe defendatzeko parada. Batetik, ez dezagun ahaztu, Voxek ordezkatzen duen ideologiak telebista kate propioak izan ditu, baita Santiago Abascalen alderdia existitu aurretik ere. Halaber, Kataluniako aferaren kudeaketan sortu duten kontakizunarekin proposamen koherente bakarra muturreko eskuin

autoritarioarena da. Konstituzioaren eta legearen zorupean dagoena hori da, ez da gehiegi harraskatu behar horretaz jabetzeko. Ezkerrak ere ez du genealogia kolonialistatik askatuko dituen espainiar nazionalismo eredu bat proposatzeko ausardiarik. Jokaleku horretan eta Europako eskuineko muturraren arrakastaren aitzakiapean, hedabide nagusiek Vox proiektatu dute erakundeetan inolako ordezkaritzarik izan gabe. Telebista minutuetan zenbatu daitezke bozak.

Horregatik, faxismoa esnatzearen errua katalanena omen da. Edo feministena zen? Biak ala biak irakurri edo entzun ditugu, eta batean zein bestean, mekanismo lotsa-emangarri berdinari erantzuten dioten baieztapenak dira. Jendarte justuago bat lortzeko borroka legitimo batek indarra hartzen badu, horrek faxismoa esnatzen du. Ez, barkatu: faxismoa hor dago, eta altxatzen ez bada lozorroan egonda ere eroso dagoelako da. Zapaltzen zaituen botaren pisua gehiago sumatzen da goraka bultza eginez gero, kontrari beherantzko indarra igarriko duzulako. Geldi egonda ez duzu hainbeste nabaritu, baina horrek ez du bota desagerrarazten, berdin-berdin jarraituko duzu zapalduta.

Gurera ez dut uste, baina oso litekeena da Andaluziatik Estatuko beste eremu batzuetara Voxen emaitzak hedatzea. Guzti horrek zerbaiterako balioko badu Espainiaren benetako aurpegia erakusteko izango da. Ez naiz "zenbat eta okerrago, orduan eta hobeto" pentsaeraren zale, ez naiz talde horretan enrolatuko. Sufrimendu handia baitakarkigu aurpegi anker eta autoritario horrek. Zenbat eta okerrago ez, baina zenbat eta argiago, bai, hobe. ■

Harribitxien inguruko hordagoa

Baditugu *harribitxi* preziatuak euskararen komunitatean. Uste baino gehiago ere, baina, oro har, ezagutza eta erabilera mugatukoak.

Horien erakusle dira, adibidez, Txerra Rodriguezek tarteka-marteka aipatu dituen *Soziolinguistikaren Top Ten*-ak. Bere hitzetan, (Euskal) soziolinguista batek galdu ezin dituen 10 webguneen zerrenda, alegia. Edo lagun horrek berak Garaigoikoa blogean duela hilabete kaleratutako *10 produktu on* artikuluan aipatzen dituenak. *Harribitxi* estimagarri horietako beste adibide bat Booktegi webgunea da (Booktegi.eus), zeina *Guztion liburuak, guztientzat* azpitoluarekin agertzen den. Interesgarria, oso. Behar dugun bezainbeste ez diren arren, beste hainbat adibide eder egon badago, baina... Beti dago *baina* bat.

Gogoan dut unibertsitatean hasi berriak ziren ikasleei galdetu ohi niela *Euskalbar* aplikazioa ezagutzen ote zuten, beraien idazlanetan makulu ezin egokiagoa izan zitekeelakoan. Nire harriurarako, ezetza nagusitzen zen urtero; askogatik gainera.

Diagnostikoa argia zen orduan, eta gaur egun ere bera da: produktu eta zerbitzu erabilgarri askoren ezagutza mugatua da. Oso erabilgarri eta lagun-garri gerta lekizkigukeen arren, balizko



Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA
@imartinezdeluna

Euskaraldia-n ahozko erabilera bultzatu dugu. Unea da bestelako aktibazio batzuei ere ekiteko. Besteak beste, euskarazko produktuen eta zerbitzuen hedapenari eta erabilerari

erabiltzaile gehienok ez ditugu dauden aukerak ezagutzen. Egunerokotasunean ditugun errokei nola erantzun euskaraz, horiek gaintzen lagundu diezaguketekin ekipamendu edo tres-

na berritzaileak euskaraz egonda ere beste hizkuntzetan bakarrik ezagutzen baditugu?

Izan ere, euskarazko produktuen eskaintza sakabanatuta dago, erdarazko eskaintza erraldoiaren zirrikituetan ia-ia galdurik. Oraindik ez dago hala-koak ezagutarazten eta bilatzen lagunduko digun gune erreferentzialik, eta *harribitxi* horiek ezin ditugu ezkutuan luzaroago utzi. Hizkuntzen merkaturan euskaldunok itxuroso eta erakargarri agertzeko gure *harribitxiak* begi-bistan jarri behar ditugu, oso begi-bistan egon ezean ez baititugu profitatuko.

Euskaldunok gure arteko harremanak trinkotzeko premia dugun bezala, euskarazko produktuen inguruan biltzeko beharra ere badugu. Bide horretatik abiatzeko, euskarazko *helduleku* (produktu eta zerbitzu) guztiak sistematikoki jasoko dituen aurkibide edo direktorio baten premia dugu, non erraz izango genukeen eskaintza zein aukeren berri. *Euskaraldia*-n ahozko erabilera bultzatu dugu. Unea da bestelako aktibazio batzuei ere ekiteko. Besteak beste, euskarazko produktuen eta zerbitzuen hedapenari eta erabilerari. Hordagoa jotzeko ordua iritsi da: nork hartuko du bere gain halako zerbitzu bat sortzearen ardura? ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Demagun



Ane Labaka Mayoz
BERTSOLARIA
@anepirata

Demagun Donostiako liburutegiko sotoan zaudela zure konplize sentitzen dituzun bertsolari batzuekin batera bertsolaritza-ren baitan genero-ikuspegitik aztertuta azken lau hamarkadetan izandako bilakaera modu bisua-lean azaltzen duen infografia aurkezten. Demagun *Euskaldia* hasi zenetik bost egun igaro direla eta aurkezpena euskara hutsean egin duzuela, bai zuk eta bai zure mahaikide guztiek ere, hasi eta buka, ekimenaren bezperan nahiz biharamunean egingo zenuketan modu berean.

Demagun berbaldiaren amaieran nahita azpi-marratu duzuela irudi bidez kontatu nahi izan du-zuen prozesua ezin dela bertsolaritza-ren baitan soilik eta modu isolatuan azaldu, eta ondorioz, keinu egin nahi izan diezuela euskalgintzari nahiz prozesuaren akuilu eta noranzkoaren argigarri izan den mugimendu feministari. Hitzezko azpi-marra fosforitoa egin diezuela nahita hiru eremu horien arteko sinergie, bidaide izan dituzelako prozesuaren hasieratik bertatik eta trukean, be-raiei eskaini diezuela aurkezpenean azken hitza.

Demagun galderen tartea zabaldu eta, bes-te inork baino lehen, lehenengo lerroan eserita zegoen gizonezko kazetari batek luzatu dizuela dardo formako eskaria, galdera izateko inongo nahirik gabekoa: esandakoen laburpena gaztele-raz egiteko, mesedez. Oso gauza interesgarriak esan dituzuela baina berak euskara maila baxu

samarra duela eta hori guztia itzultzeak lanera-ko denbora gehiegi kenduko diola. Demagun une batez ez dakizula barrez lehertu, negarrez hasi edo biak batera egin, “barkatu baina ez duzu ezer ulertu (eta ez da hizkuntzagatik)” oihukatu nahi diozula aho parean duzun mikrofonotik.

Demagun zenbaitentzat surrealismoaren go-rena litzatekeenak ez zaituela bereziki harritu oraingo honetan ere. Arrapaladan datozkizula burura, bata bestearen atzetik, hainbat jardunaldi edo foro feministatan hitzaldien osteko galderen tartea zabaltzerakoan galderarik egin ez eta beste inork hitza hartu aurretik beren iritzia ahots kon-tudentez ematen duten gizontxo hiperjakintsu horiek guztiak. “Barkatu baina zuk ere ez duzu ezer ulertu”.

Demagun gogoetagai duzula azken aldiaren no-lako ahalduntze prozesua egin duzun (eta egin beharko duzun oraindik) jendaurrean hitza har-tzen hasteko, oraindik ere zenbateraino jartzen duzun uneoro zalantza zure hitzen egokitasuna, zenbatetan geratu zaren isilik edo aipatu diozun buruan darabilkizun ideia interesgarria zure on-dokoari soilik eta ahapeka.

Demagun ausazkoa dela nork zer esateko zilegi-tasuna sentitzen duen. Botere-harremanek ez du-tela (honetan ere) asimetriarik sortzen. Batzuek hitza hartzen ikasi ahala ikasi dutela besteek isiltzen. Demagun. ■

Yoga



Itxaro Borda
IDAZLEA

Munduak orain arte besterik ezagutu ez duen arren, gure garaiak are latzagoak iruditzen zaizkigu: nork bere gurutzea. Ezinezkoa ematen badu ere, batzuetan erlatibizatze beharra dugu: ez gara horiz jantzeko puntuak, ez horixe, nahiz eta dakigun, gaur ez bada, etorkizun hurbilean erregaien gaineko tasak eta prezioak emendatuko direla, petrolio urritzearekin batera. Zorigaitzez, janariak, jantziak, kondoiak, kontsumo baliabideak oro, energia fosilduan errotuz ekoizten dira.

Horregatik estimatzen ahal da, aurtengo Duran-goko azokan aurkitu den Donostiako Maite Eizmen-di irakasleak plazaratu mp3 diskoa. Badira, bistan

dena, han eta hemen, yoga saioak euskaraz, baina lehen aldia da naski, etxeko tapiza urdina luzatu eta berehala erabiltzeko prest, ahotsezko grabaketa bat eskaintzen digitela! Ordubetez, hatsa hartzea lantzen da, postura ezberdinen jarioa eta finitzeko, erlaxatze sakona. Zorion bat!

Negarrez gabiltza beti. Euskararen egoera di-glosikoa eta herrialde otzana salatzen ditugu gure sintaxia apokaliptikoetan. Azken denbora hauetan hartatik, euskara, uste ez ditugun alorretara he-datzen ari da, ezinbestekoak denak, euskaldunak baino gehiago ere garelako: jende hutsak.

Namaste! ■

Hamaika gauza arraro

Demagun kapitalak mugagabe dena kodifikatzen duela. Ez dakit norena den, baina airean dago. Indartsua iruditzen zait, esaterako, Harveyk idazten duenean kapitalak hobeto zirkulatu zezan berdindu zutela Paris XIX. mende amaieran. Baina geografo marxista baten formulazioa da, auskalo. Edo sinpatikoa egiten zait Berlingo Byung-Chul Hanek Jeff Koonsen eskulturak, I-phonea eta Braziliang Waxingaren artean lotura egiten duenean. Pop-filosofoa da beste hau, ordea, eta auskalo. Alde literariotik gustatzen zaizkit. Bestalde, zalantza gutxi dagoela uste dut: lautasunaren aroan bizi gara. Ukipen-pantaila lauetan ispilatuta, zimurrik gabeko azalerez inguratua, ilerik gabeko azalak ezker-eskuin dena berdintzen. Kontrastearen premia du errealtate horrek.

Azaleko joko bat aukeratu dut: bi liburu-dendatako erakusleihotan ikusi ditudan ez-fikziozko liburuetan jarri dut arreta. Nire zutabegile kutunetako batek *bestsellerrak* komentatzen ditu urtean pare bat aldiz; gehien saldutako liburuok Alemaniako kultura dominantearen isplu gisa aurkeztuz. Aldez aurretik abisatzen du ez dituela osorik irakurri. Nik ez ditut zabaldu ere egin. Izenburuengatik soilik dakartzat hona eta, posiblea zaidan neurrian, alemanetik egindako hitzez hitzezko itzulpenarekin emango ditut:

Itxura dotorea duen argazki liburu bat: *Zibilizazioa. Nola bizi garen gaur*. Azpian, Sennetten azkena: *Hiri irekia*. (Irakurrita ez, baina berari zuzenean entzun diot horrela izan beharko lukeela etorkizuneko hiriak. Kontrako adibidetzat du Parisen Haussmannek XIX. mendean egin zuena eta Shangain XX. mendean bukaeran egin dena).

Ezkerretara –erakusleihotan, esan nahi da–: *Inperioaren hondakinetatik: Mendebaldearen aurkako altxamendua eta Asiaren berpiztea*. Ezkerretara, propa-



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

ganda-artearen estetika imitatzen duen gorri-zuri-beltzeko diseinuarekin: *Diktaduraren berrasmaketa. Nola antolatzen duen Txinak bigilantzia-estatu digitala eta horrek nola uzten gaituen jota*.

Bigarren erakusleihotan, diktadurarekin jarraituz: *Zer esan nahi du erantzukizun pertsonalak diktaduran?* Duela mende erdi baino gehiago idatzitakoak puri-puritan daude, eta izenburu bat baino gehiagorekin ordezkatuta dago Hannah Arendt. Lehenengo dendan ere bazegoen bere beste bat adiskidetasunaren dimentsio politikoaz: *Adiskidetasuna garai iluntan*. Letra beltzak hondo gorrian. Parean, zuri-beltzak hondo urdinean: Eva Illouzen *Zergatik amaitzen den maitasuna*. Illouz ezagutzen duenak badaki Kapitalismoa ez dela maitasun-bizitzatik at utziko.

Demokraziaren izaeraz eta balioaz, poltsikorako sail horian, klasikoa izateko itxura duen liburutxo bat. Ez argitaratze datan, baina bai demokraziaren historian atzerago eginez: *Greziarrak eta Kulturaren asmaketa*. Noraino egin dezakegu atzera? Hor tartean zegoen Charles Darwinen *Espeziaren jatorria*-ren edizio eder bat ere. Hasierara garamatza bitxikeria honek: Darwinek planteatu zuen zergatik duen gizakiak bere arbasoek baino ile gutxiago. Giza aurreabidearen marka ote?

Jatorriak iragarri ahal zuenaren kontra: Michelle Obama eta bere *Becoming*. *Bestseller* zerrendetan –Alemanian ere lehen postuan– agertzen diren izenburuen artean, hauxe da erakusleihotan ikusgarri zegoen bakarra.

Liburu saltzaileek museoetako komisarioen pare behar egiten dute jada. Ezin dute lan hori egin gabe utzi. Algoritmorik gabeko filtroak eskaintzen dituzte. Hortxe dauden bitartean, erakusleihotaren beste aldean, testuek ez dute botererik. Baina beira gurutzatu eta beste aldera joateko diskurtsoen amuak erakutsi behar ditu norbaitek. ■

HILBELTZA

euskal nobela
beltzaren astea

Baztan, urtarrilaren 14tik 20ra



Antolatzailea :



Laguntzaileak : Arizkungo Zurubi elkarte, Anizko Mendiarte elkarte, Arraiozko Herria, Erratzuko kultur elkarte.



Etxegabetzeen boomak 10 urte eta etenik ez

2008ko hipoteken krisitik hilabete gutxira hasi ziren bankuak jende andana etxetik botatzen. Horietako bat da Gloria Rodriguez gasteiztarra; ARGIA n elkarrizketatu genuen orduan eta harengana jo dugu berriz: kaleratzea infernu-bide baten hasiera izan zela kontatu digu. Luzea eta gogorra izan da kaleratzeen aurkako plataformek hamar urteotan eginiko borroka ere; hasierako amorrua eta indarra, bideko zangotrabak eta lorpenak. Garbi dute denek, oraindik asko dago egiteko.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: DOS POR DOS

2011n elkarrizketatu genuen Gloria Rodriguez. Urte hartako urriaren 31n 5 urteko semearekin eta 10 urteko alabarekin bota zuen bankuak etxetik, senar ohiak hipotekaren bere zatia ordaintzeari utzi ostean ezin izan ziolako berak bakarrik maileguari aurre egin. Egun hura buruan iltzatuta du oraindik gasteiztarrak eta bere etxea zenaren aurretik igarotzen denean negargura sartzen zaio. "Kaleratzea txinparta izan zen, borrokaren hasiera baino ez. Bankuak, etxea beretzat hartu eta enkantean saldu zuen arren, hipoteka osoa ordaintzeko falta ziren 22.000 euroak eskatu zizkidan eta hori ordaindu behar izan dut urte hauetan guztietan. Gurpil zoroa da: mailegua eskatu behar izan diot Vital Kutxari, berak eskatu didana ordaindu ahal izateko, eta kateatuta izan nau zortzi urtez, amaren etxea ere

abalatu behar izan dut eta banekien ordaintzen ez nuen unean nire amaren aurka egingo zutela. Zama hori bizkar gainean daramazu eguna joan eguna etorri, bizitza osorako. Eta egia esango dizut: ez badut nire burua zubitik bota nire seme-alabengatik izan da. Haiek senar ohiarekin joan ziren bizitzera, zer eta bera izan zenean zorra eragin zuena! Baina nire amaren etxean ez ginen sartzen, eta seme-alaben pensioa ere pasatu behar izan dut. Orain logela batean bizi naiz eta lanean aritu naizenetan ordaintzen joandakoari esker bankuarekin dudak zorra kitatzear nago, argi pixka bat ikusten hasia naiz azkenean...".

Tamalez, antzeko kasuak ohikoegi bilakatu ziren 2008tik aurrera. Bankuek sorturiko krisiaren eztandak benetako sarraskia eragin zuen eta horri erantzuteko Hipotekak Kalteturiko Platafor-

mak jaio ziren, Katalunian lehenengoa, 2009an, eta urtebete geroago Euskal Herrian. "Krisia deitzen diogu, baina ez zen krisia izan, iruzur erraldoia baizik, bankuen iruzurra. Herritar asko langabezian geratu ziren, edo egoera prekarioan, eta bata bestearen atzetik etorri ziren etxe kaleratzeak, biktimek erreakzionatzeko denbora eta gaitasunik izan gabe, ez zietelako adibidez doako justiziaren aukeraz informatu, negoziaketarako tarterik gabe abiatu zituztelako kaleratze prozesuak... Konturatzen zirenerako, kale gorrian zeuden asko eta asko, eta gainera oraindik zor ekonomikoa zuten bankuarekin. Horrek guztiak sorturiko amorrutik eta gaitzespenetik sortu ziren plataformak; hedabideak ere oso gainean zeuden urte haietan", azaldu du Kaleratzeak Stop Arabako Arturo Val del Olmok.



Gloria Rodríguez 2011n kaleratu zuten etxetik, eta zor ekonomikoak kateatu du ordutik. "Gurpil zoroa da: mailegua eskatu behar izan diot Vital Kutzari, berak eskatu didana ordaindu ahal izateko. Zama hori bizkar gainean daramazu eguna joan eguna etorri, bizitza osorako".

Erruduntasun sentimendua muineraino sartua

Hastapenetan, batik bat jatorri atzeritarreko bizilagunek pairatu zituzten etxegabetzeak, egoera ahulenean egoiteaz gain ez zutelako babes sarerik inguruan. Laster, baina, babes sareak ere ez ziren nahikoa izan, eta biktimaren profila anitzagoa bilakatu zen. Are gehiago, kaleratzeek senitarteko bat baino gehiago eraman zuten errenkadan, hipotekaren abaletan batzuek besteak lotzen zituztelako. “Seme-alabak dituen emakumearen profila izan da sarri ikusi dugunetako bat –kontatu digu Angel Larrea Nafarroako plataformako kideak–, bikotea banandu eta maiz gizonak alde egin duelako, emakumea zor guztiarekin utziz”. Drama asko eta asko ezagutu dituzte Val del Olmok eta Larreak, ez bakarrik jendea etxerik gabe geratu delako, horrez gain bankuek sekulako dirutza eskatzen jarraitu dielako baizik, baita 200.000 euro ere. “Zuzenean heriotza sozialera kondenatzen dituzten zorrak dauzka jendeak”. Halako dramari aurre egin ezinik buruko gaixotasunak garatu dituztenak, harreman zapuztuak, suizidioak... ikusi dituzte plataformetako kideek. “Jendeak porrot pertsonal gisa barneratu ditu kaleratzeak, saldu zaigulako norberaren errua dela dena”.

Hipotekaren itzal luzeari, alokairu garestiegiak ordaindu ezin dituztenak batu zaizkio azken urteotan, eta profil berri bat gerturatzeko ari da orain plataformetara: etxe batean ez, gela batean bizi diren herritarrak, egoera ezin prekarioagoan. “Eta datorkigun jendea ez da sufritzen ari den jende guztia, izebergaren tontorra baizik. Lotsagatik eta abar, ez dira gutxi prozesu guztia isilean eta beren kabuz daramatenak”, gaineratu du Larreak.

Zangotraba franko eta lorpen pozgarriak

Garbi dute plataformetako kideek: mugimendu herritarrak eta Europako Auzitegiaren ebazpenek presioa handitu ahala joan dira bankuak jarrera leuntzen, kaltetuei bestelako harrera egiten eta haiekin negoziatzen, “baina ahal izan duten heinean erresistentzia eta traba baino ez dute jarri, abusiboki eta lotsagarriki jokatu dute, sistemak ematen dien nagusitasuna eta boterea baliatuz. Publikoki salaketa jarri dugunean mugitu dira, baina guregana etorri ez

» Mugimendu herritarrak eta Europako ebazpenek presioa handitu ahala joan dira bankuak jarrera leuntzen, kaltetuei bestelako harrera egiten eta haiekin negoziatzen

» **ANGEL LARREA:**
“Garai batean kaleratuak izan ziren familia gehienak ez dira putzu sakon horretatik atera, nahiz eta horiez jada ez den hitz egiten”

» Orain kaleratze asko zorra negoziatuz bankuan eserita egiten direnez eta ez kanean, badirudi ez dagoela ia kaleratzerik. “Sotilagoak dira, ez lehen bezain ikusgarriak, baina kaleratzeak”

» Hipotekek Kalteturikoen Plataformek 2011tik Espainiako Kongresura eraman nahi duten herri-ekimen legegilea eztabaidatzea onartu berri du Kongresuak. “Proposatzen dugun guztia aurrera ateraz gero, kaleratzeak amaituko lirake, baina alderdi guztiak ez dira ausartzen bankuei aurre egiten”

diren herritarrek, oihartzuna eta gure babesa izan ez dutenek, ez dute inongo erraztasunik izan bankuen aurrean”, dio Val del Olmok. Adibiderako, etxea bankuari ematearen truke hipoteka osoa ordaintzeko gelditzen den zorra kitatzea da borroka handienetakoa, eta erakuntza-enpresa handiei zor hori barkatu diete bankuek, baina familiei ez. Hipoteka zorraren %70 promotore eta eraikitzaileekin zuten bankuek eta %30 familia edo norbanakoekin, baina esaterako 2015ean promotore horiei 32.000 euroko zorra barkatu zieten bankuek gaizki bukatutako etxebizitzan edo lurren truke, eta aldiz familiei ez zieten barkatu 7.000 milioi euroko zorra.

Politikariekin antzera gertatu dela diote: presio herritarra (tartean, Espainiako parlamentuan aurkezturiko 1.500.000 sinadurak) izan da legeak eta neurriak aurkeztera bultzatu dituen, “jendartean aurpegia zuritzeko, bankuei praktika onak eskatuz, bezero eta bankuen artean bitartekari rola sortuz... Baina neurri eskasak izan dira”, diote. Eta beste adibide bat jarri digute: hila-bete batez hipoteka ez ordaintzeagatik kaleratzeko prozesua hasi zezakeen bankuak Espainiako Estatuan, eta Europako Auzitegiak esan behar izan du klausula hori abusiboa dela. Zer egin du Espainiako Gobernuak? Kaleratze prozesua abiatzeko hiru hilabetez ez ordaintzea jarri du muga. Eta Europak berriz ere errieta: hiru hilabetez ez ordaintzeagatik etxetik botatzea ere abusiboa da. Adabakiz adabaki, gaiari serio heltzea saihesten dute agintariek.

Bidetik harri koskor asko kentzea lortu dute plataforma herritarrek. Esaterako, gizartea sentsibilizatzearekin batera, mobilizazio sozialak eta aipaturiko presioak instituzio eta bankuak neurriak hartzera behartu dituzte. Eta lortu dute kaleratze ugari gelditzea, bankuek dagoeneko etxearren truke maiz zorra kitatzea, hainbatetan gainera biktimari etxebizitza soziala eskaini ahal izatea... “Kasu zehatzei konponbidea eman diegu eta zor-kitatze bakoitza garaipen gisa ospatzen dugu, baina berdin-berdin gauzatzen da kaleratzea”. Biktimei emandako babes emozionala ere azpimarratu digute: “Erruduntasun sentimendua eta kondena morala gainetik kentzen laguntzen diegu eta uste dugu horrek gaixotasun eta bizitza asko salbatu dituela, jendea suntsituta iristen baita”. Gainera, ban-



Ezkerrean, Orkoienen kaleratze bat etetea lortu zutenean. Eskuinean, alokairu soziala aldarrikatzen eta Arturo Val del Olmo bozgorailuarekin: "Aurrera ari gara, klausula abusiboak ezabatzen eta irtenbide gero eta duinagoak eskuratzen, baina oraindik etxebizitza huts asko dago, etxebizitza sozial gutxi eta behar handia duen jende asko."

kuen jokamoldea biluztu eta gizarteratu dute plataformek: hipoteka kontratuak klausula abusiboz josita zeudela azalerratu dute (ordainketan atzeratzeagatik interes izugarriak, gutxieneko ordainketaren klausula, ordainketan atzeratzeagatik hipoteka osoa ordaintzeko eskatu ahal izatea...). "Ikusi da zein iruzur handia eta eskubideen zein urraketa larria den guztia. Gauzak lortu ditugu, baina oraindik ez da nahikoa".

Alokairu gehiegizkoak eta kaleratze ikusezinak

2011n Gloria Rodriguez elkarriketatu genuenean, urte hartako datuak eman genituen: Hego Euskal Herrian, batez beste egunero ia zortzi etxe-kaleratze egiten ziren. Gaur egun, kezkatzeko moduko zifrak ditugu oraindik: iaz, 1.611 etxegabetze egin zituzten Hego Euskal Herrian, batez beste eguneko lau pasatxo, eta horietatik %70 alokairua ez

ordaintzeagatik. Izan ere, hipoteka ordaindu ezinik azken urteotan alokairura jo du askok eta alokairuaren garestitze itzela da etxea galtzeko bide berria (Gipuzkoan hilean 1.130 eurokoa da alokairuaren batez besteko prezioa). Alokairu sozialerako aukera eskasa da, etxebizitza sozialen eskaintza askoz txikiagoa baita etxebizitza hauen beharra eta eskaera baino. Gainera, Alokabidek berak, alokairu soziala bideratzen duen EAEko erakunde publikoak, jendea etxetik botatzen du, ez baitu kuota maizterren egoerara egokitzen, eta esaterako honek lana galtzen badu, ezin du hasieran finantziatzaion kuota ordaindu.

Dena den, benetako datuak askoz larriagoak direla ohartarazi dute Val del Olmok eta Larreak, praktikan kaleratze direnak ez baitzaizkigu sarri hala aurkezten, baina maizterren kontratua ez berritzeak maiz esan nahi du kalera egin dutela, edo bankuarekin zor-ki-

tatzea negoziatu duten guztiak ez dira estatistiketan kaleratze gisa jasotzen, nahiz eta aterpe barik geratzen diren.

Ikuspegi osoa izateko, beste bi errealitate aintzat hartzea inportantea dela nabarmendu digute. Batetik, aurrean jende bat kaleratzeak ez du esan nahi ez dagoenik jende gehiago kaleratuta: urteotan guztiotan jende asko izan da kaleratua, eta asko dira egoera horri buelta eman ez diotenak, zorra bizkarrean bizi direnak, etxebizitzarik alokatu ezin dutenak (garestiegi delako edo zuzenean jabeak ez dielako alokatzen, maizter egonkorrak ez direla izango iriztita)... "Garai batean kaleratuak izan ziren familia gehienak ez dira putzu sakon horretatik atera, nahiz eta horiez jada ez dugun hitz egiten", dio Larreak. Bestetik, orain kaleratze asko zor-kitatzea negoziatuz bankuan eserita egiten direnez eta ez kalean, badirudi ez dagoela ia kaleratzerik, baina ez da hala. "Gaur egun-



Goian, Gloria Rodriguez 2011n elkarrizketatu genuenean, etxerik gabe geratu eta aterpea amarenean aurkitu zuenean. Eskuinean goian, Ezkaban (Iruñean) emakume bat etxetik kaleratu zuten unea 2014an (down sindromedun semearekin bota zuten). Behean, Juan Carlos Infante irundarra, iaz ARGIArako elkarrizketatu genuenean. Kutxabankek urik eta argindarrik gabe utzi zuten bost urtez, ateko sarraila hainbatetan aldatu zion eta azkenerako ate blindatua ere ezarri zion bankuak, etxetik botatzea lortu zuen arte.

goak kaleratze sotilagoak dira, ez lehen bezain ikusgarriak, baina kaleratzeak”.

Etxebizitzaren legeak eta lege proposamen berria. Itxaropen hazia?

Legalki hain da handia herritarren babes-gabetasuna bankuen aurrean, behin baino gehiagotan egin behar izan diola tira belarririk Europako Auzitegiak Espainiari. EAEn, berriki onartu da Etxebizitzaren Legea, EAJ eta PPren kontrako botoekin. Besteak beste, etxebizitza hutsei kanona kobratzea aurreikusten du eta muturreko kasuetan hutsik mantentzen den etxebizitzaren jabetza administrazioak bere gain hartzea. “Baina praktikan neurriko bete daitezten, gizartetik presioa egiten jarraitu beharko dugu, politikarien alde-tik ez baitago borondaterik, hain daude botere ekonomikoari lotuta –kritikatu du Arturo Val del Olmok–. Hasteko, erakunde publikoek eurek hutsik dituzten etxebizitzetzi eman diezaietela bide!”.

Nafarroan, 2013an onartu zuten etxebizitzaren gaineko legea. Hala nola, jasotzen du Nafarroako Gobernuak bost urtez bere gain har dezakeela kaleratua izan den familiaren etxebizitza, hain juxtu kaleratzea saihesteko asmoz; edo

bankuen etxe hutsei isuna jartzeko aukera planteatzen du eta etxe hutsen erregistroa egiten ari da orain Nafarroako Gobernuak.

Etxebizitzaren arloan, ordea, Espainiako Gobernuak du eskumen gehien, eta orain arte neurri sakabanatuak baino ez dituzte onartu, bateraturik ez. Martxorako, halere, Hipoteka Lege berria jarri nahi du martxan Gobernuak, Europatik iritsitako hainbat aginduri erantzunez –jendea hain erraz ez kaleratu ahal izateko–. Legeak ez du jasoko kaleratu aurretik aterpe alternatiboa eskaintzeko betebeharra.

Aldi berean, Hipotekek Kalteturiko Plataformek 2011tik Kongresura eraman nahi duten eta beti blokeatu izan den herri-ekimen legegilea eztabaidatzea onartu du, pasa den irailean, Kongresuak. Lege proposamenaren puntu nagusiak honakoak dira: etxearen truke bankuarekin zorra kitatzea eta neurriak atzeraeraginezko izaera izatea, aterpe baten alternatiba eskaini gabe kalertzetik ezin gauzatea, pobrezia energetikoari aurre egitea, etxebizitza publikoa sustatzea eta etxebizitza soziala zabaltea. Aspaldiko borroka da zor-kitatzea,

eta lorpen handia litzateke legez hala zehaztea, baina lortuz gero ere ez dirudi atzeraeraginezko izaera izango duenik, aurka agertu baita Kongresuaren gehien-goia. “Legean proposatzen dugun guztia aurrera aterako balitz, kaleratzeak bukatuko lirateke, baina alderdi guztiak ez dira ausartzen bankuei aurre egiten. Bitartean, aurrera ari gara –dio Val del Olmok–, kontratu-etako klausula abusi-boat ezabatzen eta irtenbide gero eta duinagoak eskuratzen, baina oraindik etxebizitza huts asko dago, etxebizitza sozial gutxi eta behar handia duen jende asko. Baikorrak gara, gizarteak mobilizatzen eta aldarrikatzen jarraituko duela uste baitugu, etxebizitza benetan eskubide funtsezkoa izan arte”.

Gloria Rodriguezen etorkizunak ere ez du hain kolore iluna. Bankuarekin zorra kitatzearekin batera, pixka bat bizitzen hasiko dela dio. “300 euro gehiago izango ditut hilabetean! 900 euroko soldatarekin pasa ahalko dut hilabetea eta 300 euro gehiago izango ditut, ez niretzat, nire seme-alabentzat baizik. Behingoz haiei erosi ahal izateko nahi dituzten zapatilak, behar duten zerbait, gutziaren bat... Luxua da hori niretzat”. ■

Igor Meltxor, kazetaria

“Ustelkeria kasuak ateratzean, zenbait alderdi konplexuekin ikusten ditut”

Euskal Herriko ustelkeria kasu asko ikertu ostean, Igor Meltxor *Kazetari Kanallak* 35 azaldu ditu. Javier Etayo *Tasio* marrazkilariarekin egin duen *EUStelkeria* liburuan argitaratu ditu.

Elkarrizketa: Lukas Barandiaran
Argazkiak: Ibai Arrieta



Nondik atera zenuen Tasiorekin batera liburua idazteko ideia?

Batetik, beharrezkoa ikusten nuen Euskal Herriko ustelkeria kasuei errepasso bat emanaz liburu bat idaztea. Ez soilik Euskal Autonomi Erkidegoan, Nafarroan UPN agintean zela *CAN auzia* izan dugu; Nafarroako lehendakari ohietako bat, Gabriel Urralburu, kartzelan egon da eta beste bat, Javier Otano, ia ere bai, biak PSNkoak. Egon dena, dagoena eta seguru egongo dena ikusita nahikoa arrazoi dago liburu bat egiteko. Bestetik, liburu pedagogiko bat egin nahi nuen, eta Tasiorekin dudan laguntasuna baliatuta, gehiegizko testurik gabe, zerbait argia eta grafikoa egitea proposatu nion.

Liburuan 35 kasu azaltzen dituzue, eta horietatik lau gutxienez irekita daude egun.

Horien artean *De Miguel kasua* azpimarratuko nuke. EAJko 26 bat pertsona daude inputatuta %4ko komisioak jaso izana egotzita. Orain, fiskaltzarekin tratuak egiten ari dira. Kasua argitara atera zuen enpresariak salatu zuen estortsioa egin nahi izan ziotela. Hori dena Arabako Aldunditik eta posta elektronikoko ofiziala erabilita egin zuen Alfredo De Miguel diputatuak. Eskoletako jantokien eta Osakidetzako iruzurraren kasuak ere irekita daude, eta esango nuke oraindik gauza garrantzitsu asko azaleratuko dela.

Bidegi eta AHT-rekin lotutako kasuak ere irekita daude.

Bidegi kasuari dagokionez, epaileak bost urteko epea dauka ikerketa egiteko. Kasu hori ikertu genuenean, soilik azala urratzen hasi ginela uste genuen. 30 milioi euroko zuloa legoke hor. Gipuzkoan eraiki dituzten errepideetan %35 eta %40 bitarteko gainkostuak izan dira

» Hemengo kasuak ikusita, gogoaitu egiten nau “Euskal Oasiatz” hitz egiteak

» Gainkostuak zeuden obretan adjudikazioa irregularrak egin dira

bataz beste; maila hori ez da Espainiako Estatuan ere ikusten. Epaileak halako lan mardula hartu badu, ikertzeko arrazoiak daudela esango nuke. *AHT kasuari* dagokionez, liburuan agertzen dira Xabier Arzallusek Espainiako Sustapen Ministerioan AHTaren obren inguruan egindako bilera bati buruzko adierazpenak, eta zer esana emango dutela uste dugu. Gipuzkoako erraustegiaren kasua ere hor daukagu.

Larraitx Ugartek liburuaren hitzaurrean dio asko hitz egiten dugula Espainiako Estatuko ustelkeriaz, baina hemengoaz denok isiltzen garela. Zenbaterainoko ustelkeria dago hemen?

Ez dakit Espainian ikusi dugunarekin alderatzerik dagoen. Baina badakit badagoela, eta funtzionamendua bera dela han eta hemen. Esaterako, Kataluniako %3-aren kasuarekin alderatuta, EAJk

funtzionatzeko modu antzekoa dauka hemen. *De Miguel kasuan* argi ikusi dugu. Are gehiago, azken kasu horretan enpresari katalanak daude nahastuta. Hala ere, hemen zerbait argitara ateratzen denean, esaten digute kasu bat anekdota bat besterik ez dela.

Ereduak errepikatzen dira, beraz?

Osakidetzako azterketaren iruzurrari erreparatuta, 1990ean antzeko iruzur masibo eta antolatuta bat gertatu zen. 28 urte geroago, funtzionamendua bera da. Garai hartan PSOE eta UGT-ren laguntzat antolatuta zuten, eta orain EAJren laguntzat. *Modus operandi*-a errepikatzen dute, esaterako, *De Miguel* eta *Makina Txanponjaleen kasuetan*. 30 urteren ostean, puntu berera itzultzen gara. Horregatik, orain gertatzen ari dena ulertzeko, iraganean gertatutakoa ondo ikertzea garrantzitsua da. Alder-





diarentzat komisiok eskatzea barne hartzen duen dinamika ugari dago, bai UPNren, PSNren eta EAJren aldetik. Horregatik izorratzen nau “Euskal Oasiar” hitz egiteak, hemen ere gauza ugari eduki dugulako. Inongo konplexurik gabe jokatu behar da kasu hauetan. Zenbait ustelkeria kasu argitaratzerako garaian, zenbait alderdi politiko konplexuekin ikusten ditut. Eta ez da soilik ustelkeria kasuekin, baita jarduteko moduekin ere.

Esan daiteke orokortuta dagoela gobernuetan dauden alderdiek komisiok eskatzea?

Kontuz ibili beharra dago orokortzearekin. Baina Gipuzkoan, esaterako, alderdi berak 35 urtez agindu ostean, jarduteko modu zehatz bat hartu du. Bezero-sare batzuk sortzen dituzte: komunikabide, eusko labela duten bertako enpresa, es-tatu mailako enpresa, abokatu bufete,

alderdi eta politikari berberak ari dira bidegabekeria horiek babesten. Negozioa eta alderdia gobernuan mantentzen dituzte, eta trukean, enpresa horiei obrak, lanak eta abar esleitzen zaizkie. Ikusi dugu gainkostuak zeuden obretan adjudikazio irregularrak egin direla.

Politikari eta enpresari ugari gainkostu zehatz batzuk aurretiaz adostu, ondoren iruzur eginez obra enpresa horri eman, eta azkenik, obra amaitzean, gainkostu faltsu horiek bien artean banatzen dituztela diozu liburuan.

Horretaz *Bidegi kasuan* ohartu ginen. 2011n Bildu Gipuzkoako Aldundira iritsi zenean, urte luzeetan funtzionatu zuen modu ustel hori topatu zuen. Bidegi kasuari buruz idatzitako liburuan eraikuntzako enpresek politikariei bidalitako posta elektronikoko argitaratu genituen. Mezu horietan, inongo lotsa-

rik gabe, enpresariak Bidegiri esaten zioten zenbatekoak izan behar zuten gainkostuek. Bidegiren obretako langileekin hitz egitean esan ziguten enpresariak xanpain botilak edaten ikusi zituztela lanetan bertan. Ondoren, banaketa beti egiten dute bien artean. Bietakoren batek besteak baino gutxiago jasotzen duenean, ala tartean pertsona zintzoren bat sartzen denean, orduantxe ateratzen dira argitara kasuak.

Beraz, ustelkeria kudeaketa ereduarekin lotuta ulertzen duzu?

Batzuetan askoz ere gehiago interesatzen zait kudeaketa modua, ustelkeria kasu zehatzak baino. Bezero-sareak eta ustelkeria kasuak kudeaketa eredu horretan mugitzen dira eta horrek egiten du posible. Gainkostua adostu eta dirua banatzea, kontrol mekanismoen ga-beziarekin dago lotuta. Ustelkeria arazo honi amaiera emateko, lehenik eta behin kontrol mekanismoak jarri behar dira. AHTren eta Bidegi kasuetan ikusi ditugun gainkostuak, %15etik eta %20 tik gorakoak arrunt gisa jo ditugu hemen urteetan. Gainkostu horiek arruntzat hartzea arriskutsua da. *De Miguel kasuan*, enpresariari posta elektronikoko bidez esan zioten bazekiela “kaxatik pasa behar” zuela. Hitz egiteko moduak ikusita, enpresari horrek ondorioztatu zuen beste jende askori gauza bera egin ziotela. Horiek dira funtzionatzeko moduak gure “Euskal Oasian”.

Urte hauetan guztietan zigortuak gutxi izan direla ikusita, zein uste duzu dela sistema judizialaren jarrera ustelkeriarekiko?

Alde batetik, esango nuke, azaldu ditugun kasuetan utzikeria pixka batez jokatu duela sistema judizialak. Kasu asko gehiegi luzatu dituzte, eta batzuk preskribatu ere egin dira. Guzti horrek kolokan jartzen du sistema judizialaren jarrera kasu horiekiko. Bestalde, epaileek eskura dituzten baliabideak ere urriak dira: ez daukagu ustelkeriaren kontrako fiskaltzarik. *Bidegi kasuan*, Bilduk Guardia Zibilaria laguntza eskatu zion ikerketa aurrera eramateko, izan ere, Ertzaintzak esan zuen ez zuela halako kasuak ikertzeko gaitasunik. Zigorgabetasun horren azpian hazi da ustelkeria guzti hau, eta uste dut baldela garaia gauzak argitara atera tzen hasteko. ■

Maidar Bedaxagar

“Zuberotar gazteak bi euskararen jabe dira”

Urdiñarbe, 1987. Euskal Filologian lizentziatua; liburuzaina lanbidez. Iragan urrian, *Euskaldun bat, bi euskara* izenburuko hausnarketa aurkeztu zuen Arantzazun (Oñati), Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarrean. Hitzaldiaren lema hauxe izaki: “Zuberera eta batua, zuberotar gazteen ahotan gaur egun”. Bere aburuz, zuberotar azken belaunaldi euskaldunak –demagun, 1987. urteaz geroztik sortutakoak– zuberera eta batuaren arteko lehia bizi du.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: ISABELLE MIQUELESTORENA

“Zuberera eta batuaren arteko lehia fenomeno linguistiko berria da, baina gazteen gaitasun linguistiko bezala endelegatu behar dugu”. Halaxe ikasi diogu Maidar Bedaxagari.

Zuberera eta batua elkarren ondoan

Ama-aita edo aitañi-amañi dira –oraindik ere– zubereraren transmititzaile naturalak. Transmisio eredu klasikoa egiten dute hein batean, izan ere, badi-ra euskarari nahita uko egin dioten gurasoak, beraz, Bedaxagarrek amañiaren errola berebizikotzat jotzen du hainbat familian. Halaber, gazteek ikastoletan zuberera ikasten dute, eta helduek, berriaz, Gau-eskoletan. Emeki-emeki biak ari dira uztartzen. Konparazione, egundaino eremu arrotza izandako lan munduan toki zabala hartu du euskarak. Era berean, hirugarren sektorean ere, zerbitzuetan, oro har, euskarak prestigioa irabazi du. Paradoxikoki, laborantzan, euskararen alor naturala izanik ere, urte urte transmisioa gutxituz joan da.

Zubereraren toki naturala edo indartsuena aisialdian dago gaur egun. Tokiko kultura biziari esker zurkaiztua segitzen du jendartean. Kultur agerraldian berrituz joan da –pastoral eta maskaradetan, konparazione– eta bizirik segitzen du. Aldi berean, toki berria hartu du hedabideetan. Xiberoko Botza da hedabide

nagusia, nagusiki zubereraz ari dena. Euskal Irratiak federazio barnean ari denez gero –Lapurdikoko Gure Irratia eta Antxeta irratiak, eta Baxenabarreko Irulegiko Irratiarekin batera–, saio komunak eskaintzeak euskara eraldatzea ekarri du, eta “Iparraldeko batua” sortzea ahalbidetu du. Hala berean, “Hegoaldeko batua” sartu da etxeetan EITBren bidez. Hartara, azken hogeitau urteetan zubereraz harago doan euskara ereiten ari da. Ikus-entzunezkoak dira zuberotar hiztunaren transmisioaren laguntzaileak, halarik ere, idatzizkoak –egunkariak eta aldizkariak, *Berria* eta *ARGIA*, adibiderako– nekez lortzen dute euskararen normaltasuna finkatzea. Ehun euskaldunetatik bostek baino ez dute euskara batuaz irakurtzen.

Bi ikastola daude: Sohütan (Pettarra) eta Alozen (Basabürüa). Zubereraz irakasten dute, alta, ikasbidea euskara batuarentzat ireki dute azken hogeitau urteetan. Euskalkiaren kontzientzia transmititzen diete haur eta gazteei, baina gaineratiko euskalkietara bide egiteko euskara batua baitezpadakoa dela ohartarazten diete ikasleei. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa konplexua bada ere, belaunaldi berriak euskararen aberastasunaz jabetzen ari dira. Filologoaren hausnarketan premisa hauxe antzematen da: “Euskara mintzatua eta irakurria haur eta gazte berriek bermatuko dute ezinbertzean”.

IKAS Pedagogia Zentroak sortzen du ikasmateriala, Uztaritzen finkatua. Euskarazko irakaskuntza IKASi esker garatu da; Iparraldeko euskara batua idatzia IKASen lorpena izan da hein handi batean. Areago, zubereraren kasua berezia den aldetik, IKASek eskola programak eta liburuak zubereraz berrargitaratu ditu Zuberoako eskolei begira. Bertako eskoletan egokitua izan den euskalki bakarra zuberera izan da. IKASen hizkuntza politikaren ildoan, Iparraldeko 8 urtetik goitiko ikasleak Iparraldeko euskara batuan trebatzen hasten dira, baita zuberotar ikasleak ere.

Kolegioetako etapa

Lehen mailatik –Haurreskola– Bigarren mailarako aldaketa –Kolegioa– une zaila eta erabakigarria da ikasleen bizitzan. Irakasgaiak gero eta nasaigoak dira, osatuagoak. Duela 30 urte, ikastoletako zuberotar lehen ikasleak Kanboko Xalbador ikastetxean ikasten hasi ziren. Egun, Baxenabarreko Larzabaleko Manex Erdozaintzi ikastetxean ari dira. Aldaketa hori zenbait ikaslerentzat “jauzi” handia izan zen iraganean, eta egun ere ez da samurra Zuberoatik jalgitzea. Eskola-barnetegian geratu gabe ere, ikasleak etxetik eskolara joan-jinean ibiltzea neketsua da inondik ere. Areago, ikasketak euskara berri batean landu behar izateak ahalegin han-



diagoa eskatzen du. Euskalkitik euskara estandarrera aldatzeak ikasketa berrietan murgiltzea dakar. Lehen aldikoz, jendar-te berri batean kausitzen dute euren bu-rua, ikasle gehienak baxenafarrak izaki, egunerokoan bestelako hartu-emanak es-perimentatzen dituzte, gizarteratze aro berrian hasten dira. Inflexio garaia da. Es-kola euskara batuan izanen den beldurrez, gurasoek beren euskara maila laguntzeko urriegia ote den beldur dira: “Zuberera eta batuaren muga linguistikoa hain da gotor-rra, eta naski emozionala, non ikasketak euskaraz segitzea ezbaian jartzen duten. Seaskako kolegiara eraman edo ez dudan ematen dute”, dio Bedaxagarrek.

Gazteen gaitasun linguistikoak

Alta bada, ikasbide berrian urratsa ematen duten gazteek, egokitze gramatikala eta sintatikoa egin ondoren, hiztegian eta aditz jokamoldean batuera jokadura ikasitakoan, aldaketa nabarmena erdies-ten dute hizkuntzaren alokutibotasuna-ri dagokionez. Solaskideak dioskunez, “egungo zuberotarrek erabiltzen duten euskara ez da batura moldatutako zubere-ra bat, ezta zubereratik abiatzen den eus-kara estandarra. Zuberotar gazteak, eus-kara batua zuberotarrak ez balira bezala mintzatzen dira. Bi euskararen jabe dira. Gazteek, halaberharrez, zubereraren sintaxia eta pluraltasun forma batzuk bazter-

» “Zuberotarra orain arteko isolamendu linguistikotik atera da”

tu dituzte. Fonologiaren eremuan, berriz, eraldaketa fonetiko izugarriak eman di-tuzte. Hiru ezaugarri fonetiko nagusi eslei-tzen zaizkio zubererari: azentu paraxitonoa, hasperena eta soinu bereziak. Honela dio Bedaxagarrek: “Gazteen euskara batua zuberotarra ez den intonazioa hartuz doa. Euskaldun berriek nekez gordeko dute hasperena. Eta ü soinua, sekulan ez zaio ahotik engoitik jalgiko”. Euskara batuaren erabilerak bestelako gaitasun edo konpe-tenzia linguistikokoak garatzea ekarri du belaunaldi berriengan. Haur ikastoletan hasi, lehen eta bigarren mailan ikasi eta Li-zeoan ikasketak finitzen dituzten ikasleek soinu eta azentu berriak bereganatzen dituzte. Aldi berean, txikitatik zuberera mintzo direnek beren berezko soinuak kontrolatzen segitzen dute.

Abantailak eta zalantzak

Duda izpirik gabe, irakaskuntzak eta euskararen bilakaerak zuberotarren harreman soziala eraldatu dute. Be-

launaldi berri horretako gazteak gauza dira beste lurraldeetako euskaldunekin euskaraz jarduteko, iparraldeko nahiz hegoaldekoekin. Zuberotar hizlari ber-rien buruan Euskal Herriaren beste dimentsio bat sortu da. Zuberotarrak orain dela urte gutxira arte bakan ari izan dira euskaraz beste lurraldeeta-ko euskaldunekin, iraganean, frantsesa edo espainola erabili izan dituzte beste jiteko euskaldunekin gurutzatzean. Be-daxagarren ustez “zuberotarra orain arteko isolamendu linguistikotik atera da”.

Zalantzak ez dira eskas, alta. Bi aldae-ra linguistikoaren jabe direnek “bi mintzairak elkar elika ditzakete?”. Batuaz mintzo direnean ez dute beren euskalkia baliatzen euskara estandarra aberaste-ko: “Bi mintzairaren arteko harremana aski desorekatua eta heterogeneoa da”. Bedaxagarren aburuz, “egoera honek gisa bateko hierarkia linguistikoa sor-tzen du, damugarria zenbait unetan”. Horrek zalantza bat sortu du: “Noiz arte iraunen dute hiztun horiek?”. Hiztunek ezbaian jartzen dute hizkuntza horren praktikotasuna. Deus aitzin, “nola deitu behar zaie hiztun berri hauei?”, galdetu du hizlariak. Izan ere, ikerketa zehatza-go bat egin ahal izateko, euskara berri horren jabe diren hiztunen izaera sakon ikertu beharko litzateke, berauek ontsa identifikatu eta deskribatzeko. ■

FRANKISMOKO ESKLABOAK

JAIZKIBELGO ERREPIDEAREN 'TRABAJADOREAK'

1939ko uda amaieran Lezoko goi-nafar euskarari hitz berri bat gehitu zitzaion: *Trabajadorea*. Esanahi zehatza zuen eta du, lan behartuak egitera zigortutako langileak izendatzeko erabiltzen baita, gerraostean herri hartara eta ingurura eramanak. Trabajadoreak izan ziren Jaizkibel mendiko errepidea ireki zutenak, gaur egun GI-3440 dena.



Ander Leon Nanclares

@andernaiz

ARGAZKIAK: ETXETXO ELKARTEA

Gerra Zibilaren 1939ko garaipenak ez zuen Franco lasaitu, izan ere, urte bereko irailean Bigarren Mundu Gerra hasi zen eta inbasioaren beldurra obsesio bihurtu zen ejertzito frankistako agintarien artean. Balizko eraso baten aurrean defendatzeko estrategian baino ezin da ulertu Lezotik Hondarribiko Guadalupe gotorlekura doan errepidea. Logika militarrek agindutako bidea da, izan ere, inguruko herriguneak lotzeko ez zuen eta ez du inolako baliorik.

Errepidea Estatuak berak eraiki zuen, kanpoko inolako enpresa pribaturen parte-hartzerik gabe. Errepidea egiteko eskulana jarri zuten langileak hiru motatakoak izan ziren. Hasierako hila-betetan gerrako presoak ziren, Langile

Batailoiak, suntsitu omen zutena konpondu behar zutela zioen teoriapean zigortutakoak. 1940ko amaieran Soldadu Langileen Zigor Batailoiek hartu zieten lekukoa. Bigarren Errepublika garaian soldadutza egin zutenak ziren honakoak, baina erregimen berriak ez ziren zerbitzu hori aitortu eta berriz egin behar izan zuten.

Haietaz gain, *desafecto* izenarekin zigortutakoak zeuden: ez ziren delitugileak, baina familia, lanbidea edo zehaztu gabeko arrazoi batengatik "Espainia Berriarekin" erabateko adostasuna erakutsi ez zuten herritarrak ziren eta lanarekin ordaindu behar zuten "gabezia" hori. 1943tik aurrera sententzia irmoa zuten presoak ariko dira espetxe zigo-

rra laburtzeko asmoz lan egiten. Azken hauek amaitu zuten errepidea 1946an, baina 1951ra arte ez zen ofizialki inauguratu, Francoren bisitetako bat aprobetxatuz.

Errepideaz gain, beste mota batzuetako lanak ere egiten ibili ziren langileok, beti ere balizko inbasio horren aurrean proiektaturikoak. Ezagunak dira, adibidez, Gaintxurizketa eta Arkale inguruetan eraikitako bunkerrak, *Vallespín* lerro gotorraren ibilbidean, *Setas de vanguardia* izen militarrekin ezagutzen zirenak, edo bunker arteko galeriak –bada 300 metroko luzerakorik-. Askok dira kontserbatzen direnak eta bisitatzeko moduan daudenak.

Esklabo-zuloak eta kanpamenduak

Errepide berriaren eraikuntza Lezo eta Pasai Donibane arteko muga hasi zen, Pasaiako Badiatik gertu, Erroteta izeneko zonaldean. Bertan jaso zen lehenengo kanpamendua, hamar eraikinez osatua: errepidearen bi alboetan zegoen eta trabajadoreen lotarako tokia, sukaldea, ofizialen etxebizitzak eta hainbat biltegi zituen. Handik abiatzen ziren egunero lanera. Bidea ireki ahala, Erroteta urrunten joan zen eta lan egiten zuten leku ondoan hasi ziren trabajadoreak gaua pasatzen. Hasieran zoruan bertan eta ondoren propio egindako zuloetan. Adar, hosto eta iratzeekin estali eta halaxe egiten zuten lo.

Lezoarrek Sotxo deitzen dioten zonaldean, gaur egun oraindik ikus daitezke frankismoko esklaboek egindako zuloak. 1939-1940ko negua bereziki gogorra izan zen, hotz handia egin zuen, euria erruz eta elurra ere bai. Zuloak urez betetzen ziren eta ezinezkoa zen haiek erabiltzea. Baldintza horietan, trabajadoreak gaixotzen hasi ziren –tifusa eta gripeak ohiko bihurtu ziren–, eta lana atera behar duena gaixotzen denean, ez da negozio onik agintarientzat. Hori izan zen bigarren

» Lezoarrek Sotxo deitzen dioten zonaldean, oraindik ikus daitezke frankismoko esklaboek egindako zuloak; adar hosto eta iratzeekin estali eta hantxe egiten zuten lo

» Gerrako presoek, Soldadu Langileen Zigor Batailoietako kideek, eta *desafecto* deituriko zigortuek egin zuten errepidea, besteak beste

kanpamendua egiteko arrazoia. Gero-ko dokumentuetan *Campamento Lezo Alto* izena badu ere, bertakoek ondoko baserriaren izena erabiltzen dute, Iparragirre, hain zuzen ere.


Lezoko biztanleek beti izan dute kanpamendu horren berri, baina orain dela hiru urte arte ezkutuan egon da, sasiek estalita. Iparragirre ondoko baserriko semea da Mikel Salaberria, Martizkonekoa. Ederki gogoratzen ditu umea zeneko trabajadoreen joan etorriak eta bera izan zen kanpalekuaren toki zehatza seinlatu zuena. Garbiketa lanak egin ondoren, gaur egun ere ikusgai daude eraikinak. Batzuk egoera oso onean daude, beste batzuk ez, baina denetan antzematen da obra horren tamaina.

Beste bi kanpamenduren berri ere badago, bata Jaizkibelgo tontorretik gertu, Frantsesenea izeneko zonaldean, inolako arrastorik geratzen ez bada ere, eta azkena Guadalupeko gotorlekuan, orain gutxi arte kantina izan den eraikinean.

Lezotik Zumaiaiko hildakoen biltegira

Trabajadoreen lan baldintzak gogorrak zirela esatea ez da gauza berria. Gaixotasunak ohikoak ziren, eta gauza bera esan dezakegu lan-istripuez. Horien ondorioz hilzorian geratutako langileak Zumaiaiko ospitalera eramaten zituzten eta haietako asko han hil ziren, aztarna dokumentalik apenas utzi gabe. Ez zen

Jaizkibelgo errepidea egin zuten langile esklaboak arrantxoaren orduan. Garai hartako irudi bakanetako bat da honakoa.





hori Marcelino Camacho sindikalista espainiar ezagunaren kasua izan, Le-zotik Zumaiara eta handik hildakoen biltegira eraman bazuten ere, osasuna berreskuratu eta bizirik ateratzea lortu zuen, *Confieso que he luchado* memoria liburuan kontatzen duen bezala.

Ahozko iturrien bidez badakigu luizi bat ere izan zela, dirudienez trabajadore ugari harrapatu zituen, baina horren berri idatzirik ez dugu aurkitu. Beste heriotza batzuk baieztatu ahal izan dira ordea. “Su armaz” hiru lagun hil zituzte-la diote Lezoko Erregistro Zibilean aurkitutako dokumentuek: 1940ko otsai-lean Angel Fidel Martínez Posada, urte bereko maiatzean Carlos Corral Alcalá eta 1946ko irailean Adolfo Gutierrez García. Agirik ez dute zehazten ihesaldi kasuak izan ote ziren, fusilatu egin

Goiko irudietan, ‘trabajadoreen’ kanpamenduetan zeuden barrakoi-aztarnak; Etxetxo talde memorialista eta Lezoko Ekoloji Taldea eremu horiek berreskuratzen ari dira oroimena eta ingurumena mantentzeko helburuz. Beheko irudietan, 2016ko urriaren 9ko herri antzerkia (ezkerrean), eta langileei egun hartan egindako omenaldia, haien ondorengoak bertan zirela (eskuinean).

zituzten edo bestelako istiluetan hil ote ziren. Ofizialki horiek dira aipatzen diren bakarrak.

Zigor publikoak herriko plazan

Errepidearen eraikuntza eta haren inguruko gertaerak ezagutzeko eta zabal-tzeko lanean ari dira Lezoko Memoria

Historikoaren Taldeko kideak. Herrian sinbolismo handia duen izena aukeratu dute: Etxetxo. 1936an matxinatuek Le-zon egin zuten lehen sarraskia izen bereko baserrian izan zen: hango ama eta hiru semeak baionetaz hil zituzten Nafarroako Tertzioen tropek, herria hartu baino egun batzuk lehenago.

Talde memorialista burubelarri dabil trabajadoreen lana eta herrian utzi zuten aztarna berreskuratu nahian. Lezok 1939an 1.200 biztanle inguru zituen eta, Etxetxoko kideen kalkuluen arabera beste horrenbeste langile heldu ziren herrira.

Gehienak mendian bizi ziren, baina ofizialek eta intendentiako langileek Kale Nagusian zuten egoitza, besteak beste, Elias Salaberria margolari ospetsuaren etxe azpiko sotoan. Noizean behin, pre-

Langileentzat jaso zen lehen kanpamenduaren tamaina argi ikus daiteke 1954ko ortofoto honetan. Lotarako 120 metrorainoko barrakoi luzeez gain, sukaldea, biltegia eta ofizialen etxebizitzak zituen.

soak Gurutze Santuko elizara eramaten zituzten meza entzutera, eta beste batzuetan, Lezoko plaza erdian zigortzen zituzten, "indiziplinagatik". Herritar nagusien oroimenean jipoiak eta preso-en garrasiak geratu dira iltzatuta, baita kolpeak emateko ardura zuen militarren ezizena ere: *Pinotxo*.

Elkartasun historiak

Historia ilun horren erdian, trabajadore eta lezoarren arteko harreman politak ere sortu ziren. Esaterako, Kale Nagusian bizi ziren emakumeek presoeri arropa garbitu, lisatu eta askotan josi ere egiten zieten. Batek jasotzen zuen enkargua, eta lan handiegia zenez, laguntza bilatu eta laster elkartasun sare zabala osatu zuten. Trabajadoreek, noski, ez zuten ordaintzeko dirurik eta trukean bertako emakumeei egurrezko eskultura txikiak ematen zizkieten. Lezoar batek oraindik gogoan du egur landu haietako bati atontzeko zeukan oihala kendu zionean hartu zuen sustoa: *Mueira Franco* zeukan idatzita.

Harreman haietako batzuk sendotuz joan ziren eta preso zenbait, behin aske geratuta, Lezon bizitzen geratu ziren eta ezkondu zenik ere badago. Gutxienez sei ezkontza izan zirela badakigu; gaur egungo lezoar batzuk, gizon zein emakume, haien ondorengoak dira.

Emakume solidario eta preso horien ondorengoak –bai Lezon bizi direnak bai beste toki batzuetatik etorritakoak ere–

2016ko urriaren 9an herrian antolatu zen ekimenaren protagonista izan ziren. Barrakoietara bisita egin eta gero Jaizkibelgo errepide hasieran eskuinaldean dagoen txoko batean plaka inauguratu zuten; obra horren egileak frankismoko esklaboak izan zirela gogorarazteko balio du. Garaiko gertaeretan oinarritutako kale antzerkia ere egin zuten hainbat herritarrek, eta amaitzeko omenaldia herriko plazan, trabajadoreek zigorrak jasaten zituzten toki berean.

Oroimena eta ingurumena berreskuratzeko auzolana

Etxetxok, herriko beste taldeekin elkarlanean, helburu bikoitza duen auzolana antolatu ohi du. Alde batetik, kanpa-

menduko barrakoiak berreskuratzea, eta bestetik, Lezoko Ekoloji Taldeak bultzatuta, inguruko basoa txukuntzea bertako espezieak landatuz. Lan horietarako egun bereziak aukeratzen dituzte gainera, aurtengo udazkenean, esate baterako, Urriaren 12an eta Abenduaren 6an jardun zuten, jai egun espainiarak biak. Horrez gain, bisita gidatuak ere egiten dituzte, gehien bat ikasleekin, baina baita beste taldeekin ere.

Epe ertaineko helburuak ere badituzte lezoarrok. Herriko Udalaren babes osoa izan dute orain arte, baina beste erakundeen inplikazioaren bila dabilta orain. Iparragirreko barrakoiak dauden lursaila pribatua da, eta gauzak dauden bezala, ondare hori arriskuan egon daiteke. Eremua mantentzeko Ondare Historiko izendatu beharko lukete lehenik, eta hori lortu ahal izateko Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta Eusko Jaur-laritzako Gogora institutuarekin harremanetan daude.

Epe luzerako helburua, aldiz, lurak erosi eta memoriaren zentro bat eraikitzea da, garaiko barrakoiaren errekonstrukzio bat egitea eta ibilbide historikoa osatzea, Jaizkibeleatik oinez, bizikletaz edo kotxez pasatzen garen bakoitzean, asfalto horren azpian milaka trabajadoreen izerdia eta odola dagoela ez dezagun ahaztu. ■

» Lezoko Kale Nagusiko emakumeek *trabajadoreei* arropa garbitu eta lisatzen zieten. Batek jasotzen zuen enkargua, eta lan handiegia zenez, laster elkartasun sare zabala osatu zuten

Gaztaina

Merkea, gose-hiltzailea eta osasuntsua

Hator, hator, neska mutil etxera / gaztaina zimela jatera...

Udazkena azkenetan da. Bazterrak kolorez janzten doaz. Garai aproposa mendian ibiltzeko. Lurrean, han eta hemen hosto artean barreiatuta ikus daitezke irailaz geroztik arbolatik jausitako lokotxak –sokalak, arbotsak, morkotsak, kirikiñoak–, inguru heze eta ilunetan gehienbat. Kolorez nabarrak, arantzaz estaliak, ez dute itxura erakargarriegirik, behinik behin ez dakienarentzat barruan gordetzen dutela beren hazia, hil hotzetarako jaki preziatua: gaztaina garaia da.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Josu Narbarte eta Eneko del Amo

Nekez topatzen dira gaur Euskal Herrian tamainako gaztainondo-sailak. Espeziearen egungo banaketak ez du erakusten zuhaitz honek izan duen garrantzia ekologikoa, ekonomikoa eta kulturala, bere hedapen-eremua hazkunde azkarreko konifero-plantazioek hartuta baitago neurri handi batean. Gastronomian ere gaztainen erabilera arras galdu den arren, oraindik egiten dira elikagai honen historiari balioa ematen diharduten Gaztainerre jaiak, Gaztainadak, Gaztaina egunak, eta abar.

Beraz, zein da Euskal Herriko gaztainondoan benetakoa egoera gaur? Nola-koa izan da, historian zehar, haien kudeaketa? Zer ondare utzi digu zaintza horrek? Eta nondik datoz egun kontsumitzen ditugun gaztainak?

Pobreen ogia

Luzaroan eztabaida izan da, gaztainondo Euskal Herrian erromatarrek sartu ote zuten ala ez. Egun, onartuta dago Kantauri inguruko eskualdeak espezie honen babesleku izan zirela azken gla-

ziazioan zehar, duela 26.500 urte inguru; baina egia da, halaber, Burdin Aroaz geroztik (duela 3.000 bat urte) eta bereziki erromanizazioaren ondoren (duela 2.000 urte), gaztainondoa asko hedatu zela, ziur aski giza beharrei lotuta. Zentzu honetan, oso adierazgarria da Bidasoako estuarioan garai honetako gaztainondo-polenak zereal-arrastoekin batera aurkitu izana, ordurako nekazal sistematan integratuta zegoen produktua zela erakusten baitu.

Euskal gizarteek aspalditik eskura izan duten baliabidea izan da gaztaina. Bere bilakaera historikoa gizakiarekin sinbiosian gauzatu da, estu elkarlotuta, ia “etxeko” dei litekeen zuhaitz bilakazteraino. Modu espontaneoan ere hazten den arren, baserrietan nahiz herri-lurretan oso ohikoa izan zen mintegiak sortzea, eta mendeen joanean teknika gero eta sofistikuagoak garatu ziren aldaketak eta txertaketak modu eraginkorrean egiteko.

Gizakiak landutako espezie ororekin gertatzen denez, andana bat gaztaina

barietate desberdin daude Euskal Herriaren luze-zabalean. Hauek herritik herrira aldatzen dira, eta oro har lokotxaren ezaugarriei edo gaztaina kopuruari erreparatuz bereiz daitezke: “ulezuri” delakoak, kasu, sokal zuriak dauzka; “txirikordak” berriz, kateatuta izan ohi ditu; “hirunakoak” hiru gaztaina dakartza arbots bakoitzeko, eta “aita handi” izenekoak gaztaina handi bakarra. Bakoitza hautaketa –eta hibridazio-prozesu jakin baten emaitza da, eta funtzio desberdinetarako baliatu izan dira.

Gaztainaren erabilera nagusia giza-kien zein abereen elikadura izan da. Aita Larramendik 1754an idatzita utzi zuen Gipuzkoan gaztaina laguntza handikoa zela baserrientzat eta jende xumeentzat, haiekin elikatzen baitziren neurri handi batean. Garai bertsean (1764), Voltairek esan zuen Frantziako aunitz probintzian ia “gaztaina-ogia” baino ez zela jaten. Mendebete beranduago, Joan Ignazio Iztuetak horrela zehaztu zuen: “*Guipuzcoan badira echeac, asco ta asco alere, beren mugapean bildutaco*



FITOTERAPIAKALAUZ.HU

gaztañatic sei edo zazpi illabeteco goiz arratsetan naierara bazcaturic, chiqui arqui guztia abereai jan-erazo, eta gañera iruroguei anega ta gueiago azoquean saltzen dituztenac. Provincia onetaco mugape guztia da gaztaña toquia; eta onen ale gozo elduric jalquia, bera da janari ta jaquia". (Guipuzcoaco Provinciare Condaira edo Historia, 1847).

Haren aburuz, gaztaina zen "janari mueta bat aïñ merquea, goseiltzallea, eta osasuntsua, ezic, gatz pitin bat egotzi eta beste gozagarri bague, berarequin bacarric dago prestatua noiz nai otordua". Fruitua egosita zein danbolinean erreta jan zitekeen, edo irin bihurtuta, "pobreen ogia" zeritzana egiteko. Praktika gastronomiko hauek bat datoz, orobat, Europako beste herrialde menditsu batzuetan dokumentatutakoekin: Auvernian, Périgorden, Galizian, Korsikan edota Britainian, adibide gutxi batzuk aipatzearren. Haietan guztietan, gaztainak herritar pobreenen elikaduraren oinarria osatzen zuen neguko hilabete luzeetan.

GAZTAINONDOA (CASTANEA SATIVA)

Baso misto atlantiarraren berezko osagaia, ohiko espeziea izan da Euskal Herriko mendialdeetan. Garatzeko, lur sili-zeoak eta prezipitazio altuak behar ditu, sobera argirik eta berorik gabe; bere hedapen-eremu potentziala zola eta ibar ospelak dira, 500-600 metro bitarteko altitudeak bitarte. Haztean, 30-35 metroko garaiera hartu, eta mila urteraino ere bizi daiteke.

Gaztainaren kultura bat

Fruitua jatea ez da izan, noski, gaztainondoaren erabilera bakarra. Ikatzetarako egoki jotzen ez bazen ere, arbolaren zura ere preziatua zen, iragazgaitza eta oso iraunkorra delako. Enbor-azaletik, berriz, tanino izeneko toxina erauzten zen; 1750. urtean, Nafarroako erresumako ordenantza-arau batek gaztainondoak babesteko beharra azpima-

rratu zuen, gai hau ezinbestekoa baitzen larruak ontzeko eta itsasontzietako soka zein sareen usteltzea oztopatzeko. Laburbilduz, esan daiteke Euskal Herrian, beste toki askotan bezala, kultura oso bat egon zela gaztainondoaren inguruan egituratuta.

Gure mendietan bada oraindik erabilera zahar hauen lekukorik. Toponimian oso ugariak dira gaztainondoen aipamenak: gehienak generikoak dira—Gaztañadui, Gaztañeta, Gaztañaga eta eitekoak—, baina batzuetan praktika zehatzak ere erakusten dituzte: Gaztainmotxa leku-izena (Oartzun), kasu, ikazkintzari lotua da ziur aski. Ez dira falta elizak ustiatutako gaztainadien berri ematen diguten toponimoak ere: Gaztañabedeinkatua (Segura), Abadegaztañeta (Zornotza) eta Arimengaztañadia (Ziortza-Bolibar), esaterako. Debagoienan deigarriak dira honakoak: Gaztañamintegi bat Oñatin, Auzogaztañeta bana Larrino (Aretxabaleta) eta Marin (Eskoriatza) elizateetan, eta Auzogaztañadui bana Mazmelan (Esko-



Ezkerretik eskuinera, neurri handiko gaztainondo zaharra Berro auzoan (Elizondo, Baztan), 2018ko azaroan. Auzo berean eta garai berean ateratakoa da bigarren argazkia: hespila. Hirugarren argazkian beste hespila ageri da, Zezenarriagako sarobean (Zelatun, Errezil), 2018ko irailan ateratakoa.

riatza) eta Bedoñan (Arrasate). Garai bateko herri-lurretan gaztainondoak landatuko ote ziren, akaso, auzoko guztiek erabiltzeko moduan? Zaila da esaten, baina Genevillan (Nafarroa) badute halako praktiken berri.

Nabarmentzekoak dira han eta hemen sakabanatuta gelditu diren gaztainondo zaharrak; batzuk benetan monumentalak. Ohikoak dira, halaber, harrizko hormaz egindako itxidura txikiak, biribilak zein karratuak. Resurrección María Azkuek “eskorta” eta “kortina” hitzak jaso zituen elementu hauei erreferentzia egiteko. Saran, Joxe Miel Barandiaranek “gaztainespil” izendatu zituen; “espille” Baztanen ere dokumentatu da. Gorbealdean, berriz, “kirikiñausi” eta antzeko aldaerak erabiltzen dituzte. Gipuzkoako zenbait tokitan estalita egoten ziren — Italiako Aosta haraneko *grehe* direlakoen gisara—, eta “gaztanborda” zeritzen.

Egitura hauek gaztainen biltegi-funtzioa betetzen zuten. Udazkenean, lokotxak erortzean, hespilen barruan pilatu eta garoz, elorritz nahiz orbelez estaltzen ziren, animaliek jan ez zitzaten. Horrela, egoera onean mantentzen ziren hurrengo hilabeteetan, etxeko beharren arabera pixkanaka ateratzeko. Zenbait kasutan, gaztainak (zimelak?) hurrengo udaberriraino ere manten zitezkeen jateko moduan.

» Udazkenean, lokotxak erortzean, hespilen barruan pilatu eta garoz, elorritz nahiz orbelez estaltzen ziren, animaliek jan ez zitzaten. Horrela, egoera onean mantentzen ziren hurrengo hilabeteetan

» XVIII. mendean gaztainak herritar pobreenen elikaduraren oinarria osatzen zuen neguko hilabete luzeetan

» XIX. mendearen azken laurdenean larriki jo zituen oinbeltza deitu zaion gaitzak eta gaztainondoak ia desagerrarazi zituen

Azken urteetan azaldu dira mendi-ondare hau ikertu eta balioa emateko proiektuak. Gorbeako Parke Naturalean egindako lanei esker, adibidez, 36 hespil inbentariatu dira, eta Orozkoko Udalak ibilbide bat atondu du jendartean ezagutzera emateko. Baztanen ere ezagunak dira halako elementuak; lehen ikerketek gutxienez 8 ale identifikatzeko aukera eman dute. Hernio magalean, Zelatunen ere badaude adibideak, baina kasu honetan inongo inbentariotan jaso gabe; zalantzarik ez da mendi-ondarearen inguruan asko dagoela, oraindik, ikertzeko.

Gaztainondoen gaitza

Baina gaztainondoa ia desagertuta dago Euskal Herrian. Azken mendean nabarmen egin dute behera gaztaina kontsumoak zein gaztainondoen zaintzak, kultura zahar honen memoria bera ere ia galtzeraino. Gainbehera horretan faktore askok eragin dute; ez zen makala izan bide, adibidez, gaztaina-jateak klase xumeentzat zekarren estigma soziala. Une kritikoa, ezbairik gabe, XIX. mendearen azken laurdenean iritsi zen, gaztainondoak larriki jo zituen gaitzaren eskutik.

Izurri honi oinbeltza deitu izan zaio euskaraz —gaztelaniaz *tinta* eta frantsesez *encre*—, izan ere bere ondorio-rik ikusgarriena zuhaitzaren sustraiak



nekrosatzea izaten baitzen, azkenean alearen heriotza eragiteraino. Gaitzaren jatorria ezagutzeko, Bizkaiko, Gipuzkoa-ko eta Nafarroako Aldundiek ikerketa enkargatu zioten J.M. Goikoetxea Alzuaran zientzialariari. Lan horren ondorioak konferentzia batean aurkeztu ziren 1900eko martxoaren 16an, Donostian, eta urte berean argitaratu zituen Bizkaiko Probintziaren Inprimategiak.

Txostenaren arabera, izurritearen lehen zantzuak 1871. eta 1872. urteetan azaldu ziren Bizkaiko kostaldean; 1876rako, Ondarroan, Mendexan, Berriatuan, Amoroton eta Lekeition dokumentatuta ageri da. Bestalde, Lapurdin 1883an azaldu zen lehen aldiz, Saran eta Senperen; Zuberoan, 1998an, Atharratzen. Hala, hasieran izurritea mantso zabaldu bazen ere, XIX. mendearen bukaeran jada Euskal Herri osoko aunitz gaztainondo gaitzak jota zeuden, tokiko komunitateetan nahiz agintari politikoaren artean kezka pizturik.

Goikoetxeak *Phytophthora* generoko onddo bat identifikatu zuen gaitzaren iturri. Onddo honek gaztainondoei erasotzen zien, batik batik mendizoletan eta ibar ospel eta hezeenetan —hots, gaztainondoa hazteko tokirik egokietan— barreiatuz. Egoerari aurre egiteko, honako konponbideak proposatu zituen: 1) zuhaitzen arteko distantziak

handitzea, kutsadurak oztopatzeko; 2) eroritako orbak, fruitu eta abarrak biltzea eta erretzea; eta 3) gaztainondoak kobre sulfuroarekin bustitzea, Bordeleko mahastiekin egiten zen gisan. Mota honetako tratamendu kimikoek gartzen segituko zuten XX. mende hasieran ere, batik batik 1940ko hamarkadan P. Urkixo Landaluze ingeniari agronomoak proposatutako metodo berrien bidez.

Gaitza saihesteko beste modu bat gaztainondo erresistenteak sortzen saiatzea izan zen, Japonian misiolari zebiltzan zenbait elizgizonek 1907an Aldudera bidalitako bariatate asiarrak bertako gaztainondoekin txertatuz edo hibridatuz. Esperimentuak mugaren bi aldeetan egin ziren. Ipar Euskal Herrian, Lekorneko G. Lafitte 1930eko hamarkadan hasi zen bere sailetan txertaketak entseatzeko; Hegoaldean, Urkixo Landaluze bizkaitarra aipatu behar da berriro, 1940ko hamarkadan Coruña-ko Fitopatologia Estazioko zuzendari gisa egin zuen lanagatik.

Ez dirudi saiakera hauek arrakasta handiegirik izan zutenik. Alde batetik, 1947tik aurrera, Euskal Herriko gaztainondoek gaitz berri bat pairatu zuten: txankroa, hau ere onddoek eragindakoa. Bestetik, jarduera eta aktore desberdinek gainjartzean oinarritutako landa-ekonomia tradizionala gainbeheran hasia

- » Antzina, gaztainadiak beste motetako basoekin, bazka-guneekin, iralekuekin edota otadiekin tartekatuta egoten ziren

- » XX. mendean mosaiko konplexu horiek espezie bakarreko plantazioek, batez ere pinudiek, ordezkatu zituzten, bioaniztasunaren kaltetan

- » Mendi-ekosistemek izurriteei, desastre naturalei eta bestelako krisiei aurre egiteko zeukaten gaitasuna apaldu zen arras

zegoen ordurako. Antzina, gaztainadiak beste motetako basoekin, bazka-guneekin, iralekuekin edota otadiekin tartekatuta egoten ziren; baina XX. mendeak aurrera egin ahala, mosaiko konplexu horiek pixkanaka espezie bakarreko plantazioek, batez ere pinudiek, ordezkatu zituzten, bioaniztasunaren kaltetan. Ondorioz, mendi-ekosistemek izurriteei, desastre naturalei eta bestelako krisiei aurre egiteko zeukaten gaitasuna apaldu zen arras.

Higadura handitu, eta tokiko komunitateen ezegonkortasun ekonomikoa areagotzen zen heinean, azken hamarkadetan epe motzeko estrategiak nagusi dira, ingurumenari gero eta modu bortitzagoan eragiten dioten kudeaketa-eredu intentsiboetan oinarrituta. Honen arriskuak begi-bistakoak dira; 2018an alarma guztiak piztu dituen pinuaren gaitzaren aurrean, gaztainondoarekin gertatutakoak hausnarketarako gako baliotsuak eskaini beharko lizkiguke. Ikasi ote dugu lezioa? ■

Hazia hazi eta ez jaki



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: ESACADEMIC.COM

Uzta gehienak burutu dira. Landareen zikloaren amaiera hazia da, beste landare berri baten zikloari hasiera eman-go diona, alegia. Uzta ganbararazten dugunean fruituak edo haziak jaso ohi ditugu, eta bietatik jango dugu negua berotzeko. Landareak ikaragarrizko indarrak bideratu ditu fruitua eta hazia osatzera eta biek energia asko dute. Fruituan pilatutako energia hori, elikagai izango da haziak hara-hona hedatu behar dituzten animalientzat. Haziak berak energia meta bat dira. Hazia ernamuin edo hazi bat da oinarrian eta hura hozitzen edo ernetzen denean sortuko den landaretxo berria elikatzeko energia. Ernamuinak sustraia eta hostoa sortu arte beharko duen energia horixe da haziaren atal handiena.

Animalion elikaduran fruituak, batez ere udazkenean, eta haziak, batik

bat neguan, axolazkoak dira. Neguan nahikoa bazka izateko animalia asko ikusiko dugu haziak bildu eta jasotzen. Tartean gu: garia (*Triticum spp.*), baba (*Vicia faba*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*), hurra (*Corylus avellana*), intxaurra (*Juglans regia*), artoa (*Zea mays*) eta abar.

Haziak ez ditugu gosea isiltzeko soilik jasotzen, ordea. Hurrengo sasoiaren ereiteko ere beharko ditugu. Horixe da haziaren xede nagusia, bere espezieari eusteko landare berri bat ematea. Hazia hazi eta ez jaki.

Haziak hazitarako jasotzeak baldintza batzuk bete behar izatea dakar. Ernatzeko gaitasunari ahalik eta ganorarik handienaz eutsi behar dio. Horretarako hazia toki berezian eduki behar da. Landarea bizi den tokian haziak izango lukeen tratua da egokiena.

Geurean haziak lehortu egiten dira eta sortasun moduko batean sartzen dira. Sor jartzea babesgarri zaio. Energia ezin du alferrik galdu eta sasoi egokian ernatzea nahitaezkoa du landaretxo berria bizikizun izan dadin. Garaiz kanpo ernatzen bada, hiltzeko arrisku latza. Haziak neguaren etorria eta joana sentitu behar ditu. Negutea amaitu eta udaberria iritsi dela egiaztatu arte lo bezala egongo da. Gero, baldintza egokiak etortzean ernamuina piztu, metatutako energia dantzan hasi eta sustraia luzatuko du; landare berri batek bizitzeari ekiten dio.

Hazitarako hazirik baduzu, lehenbailehen atera kanpora eta negua sumatu dezala. Behin ereinda gero udaberriaren epel heze eta gozoa antzematean, esnatu eta indarrean ernatzen dadin. ■

Inausketa egiteko emeak martxoaren ilbeheraren hasieran inausi eta arrak, urte guztian duten eginbehar bakarria amaitzen dutenean, loraldia bukatutakoan, alegia.

Ongarria, zalantzarik gabe. Eman daukazunetik eta asko: simaur, luar edo konpost... Orain garai ona da horretarako.

Euskarria nahi izatera goian txapela moduan edo bestela hesi bezala. Euskarri oso indartsuak behar izaten ditu eta hori hasieratik kontutan izan, bestela gero damutuko zara.

Jakoba Errekondori GALDERA

Jarri berriak dittugu kiwi landareak, udaberrian. Jakin nahi duguna: nola eta noiz moztu; lurrari laguntzarik eman behar zaion eta ondo zabaltzeko euskarria nola jarri. Igeldon bizi dira kiwi hauek. Aurretik eskerrik asko. (Ana Arratibel)

OLATXUKO LABOREAK Baserrira jo eta kontserbei ekin dien gaztea



Garazi Zabaleta

Nekazaritzari lotutako ikasketak amaitu zituenean argi zuen Haizea Bengoetxea Andikoetxeak lurrari lotutako proiektuaren batean egin nahi zuela lan. 2011n, egun Olatxuko Laboreak denaren lehen pausoak eman zituen Arrietako (Bizkaia) aiton-amonengandik jasotako jakintzak eta liburu nahiz formatzetatik ikasitakoak uztartuz. Orain, proiektuan jauzi berria eman nahi izan dute Fikan (Bizkaia) lursail berria erosituz: frutarbolak eta negutegiak dituzte bertan, eta baserri berriaren lehen hormak ere sortze prozesuan dira jada.

Txikitasunari eutsiz hazi den proiektua

Olatxu baserrian egin zituzten lehen bi urteak proiektuko bi kideek, baina nekazaritzara lehen hurbiltze hori eta gero Arrietako beste baserri batera mugitzea erabaki zuten. "Baserri honetara etorri ginenean obradorea jarri genuen eta Olatxuko Laboreak proiektuari buelta batzuk ematen hasi ginen", dio Bengoetxeak.

Hasieratik eredu agroekologikoaren aldeko apustua egin dute, nekazaritzatik bizi ahal izateko bide bakarra horixe



delako konbentziturak. "Aiton-amonengandik jasotako jakintzak eta liburu nahiz formatzetatik ikasitakoak uztartuz. Orain, proiektuan jauzi berria eman nahi izan dute Fikan (Bizkaia) lursail berria erosituz: frutarbolak eta negutegiak dituzte bertan, eta baserri berriaren lehen hormak ere sortze prozesuan dira jada.

Jakintzak elkarbanatzen

Plazaz-plaza, azokaz-azoka mugitzen da Bengoetxea kontserbak zuzenean salduz. "Azokez gain, komertzio txikiekin ere egiten dugu lan. Bitartekariak izan arren bestelako baloreak dituzte, eta haiek ere egin dute gurekiko apustua", azaldu du.

Duela urte pare bat ikastaroak ematen hasi ziren. "Zer eta nola egiten dugun azalduz kontserba ezberdinak egiten ikasten dugu". Zerbait puntuala izan arren, jarraitu nahi dute ezagutzak jendearekin elkarbanatzen eta kontserben inguruan horrelako espazioak sortzen. Hurrengo urtean tailerrak Fikan, proiektua garatzen duten tokian bertan eskaintzea dute asmo. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Abenduak 29: Murua

Espeleologia irteera, 10:00etan hasita. Gorbeian dagoen Mairuelegorretako haitzulora sartu-ateratzea. Erreserbak: www.basquemountains.com/reservas.

Abenduak 29: Aginaga

Xaboi naturalak egiteko tailerra eta gozoki tailerra. 15:00etan plazan.

Abenduak 29: Artea

Orientazio lasterketa. 18:00etan plazan.

Abenduak 29: Elgoibar

Gabon Zahar Azoka.

Abenduak 29: Bilbo

Gure Lurreko Merkaturak. 10:00etan Areatzako Tinglatuetan.

Abenduak 29: Lizarra

Trufaren esperientzia. 11:00etan Biolurraren museoan (Ganuz 1).

Abenduak 30: Donostia

Urtarrileko zerua eta kometak. 12:30ean Eureka museoan.

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka · t @argiaAzoka

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

Bertsolaritza infografia


"Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik" du izenburu, eta emakumeek bertso munduan egin duten bidea biltzen du, ikuspegi feministatik.

Neurriak: 59,4 cm X 85,1 cm.

Egileak: Ainhoa Agirreazaldegi, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Ane Labaka bertsolariak eta Txakur Gorria kolektiboko Malen Amenabar eta Mariñe Arbeo.

Banatzailak, elkarlanean: ARGIA, Berria, Jakin eta Lanku.

8 euro
bidalketa
gastua
barne




34
gai
musutruk

Abenduaren 27an, osteguna, 10:00etan...

ARGIA Jendearentzat musu-truk jarriko ditugu **argia.eus/azoka** webgunean.

Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu! Denok gozatu dezagun, Biezkon egonaldia edo Kafe Antzokian bazkaria behin hartu duenak, utzi besteei aukera.



Bizi Baratzea lamina 47 eta 48

Antton Olariagak eta Maialen Lujanbiok eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 cm.



Biezkon baserrian asteburua

Atxondon egonaldi ederra ingurune paregabean.

URTEKO LEHEN ZENBAKIA

100 urte, 100 orri



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Txiste moduan hasi bazen ere, egia bihurtuko da “100 urte, 100 orri” leloa. 2019ko urtarrileko lehen zenbakia berezia izango da: astekariak urteak adina orri izango ditu. Indartsu hasiko da mendeurrena, justu aurreneko Zeruko Argiak inprimatu ziren egunen bueltan, 1919an ere ilbeltzaren lehen egunetan jarri baitzen martxan inprenta.

Hilabete eta erdi lehenago hasi ziren zienta bat orrialde betetzeko eduki sorta prestatzen, eta Euskal Herriko zein nazioarteko gairik potolo eta mamitsuenak erreserban utzi dituzte orain arte, ale berezi honekin urteari hasiera gogorra emateko. Oraingoan pistarik ere ez dizut emango, ordea, erreportaje, elkarrizketa eta artikuluek; indartsuegiak baitira hemen bi lerrotan azaltzeko. Hori bai, hitza ematen dizut, irakurle, merezi duela alearen zain egoteak.

Banaketa berezia

Bidelagun mordoa izan dituzte Zeruko Argiak eta ARGIAk mende osoan zehar eta artxibo informatiko handi bat dago ehun urte hauetan inoiz harpidedun izan diren guztien zerrendarekin. Lan-

taldeak badaki proiektu hau bidelagun horien guztiengatik ez balitz ez litzatekeela gaur hemen izango, eta eskertza modura helbide horietara guztietara igorriko dute zenbaki berezia.

Irteteko pistola-hotsa da 2019ko lehen zenbaki hau. Baina urte osoan ezagutu eta jasoko ditugu sorpresa gehiago. Hasteko, diseinu aldaketa egiteko aprobetxatuko da ale berezia, irakurleari ARGIA berri bat, gustura irakurtzeko aldizkari bat eskaintzeko asmoz. Bigarren aldizkariarekin batera jasotzen hasiko gara astero opari ehun urteotako portada hautatu baten lamina, Koldo Izagirreraren azalpen testua lagun duela.

Ehun urte bizian behin betetzen omen dira -heltzea lortzen duenak, behintzat-, eta ARGIA proiektuaren komunitatea sendotzeko aproposa da momentua. Zergatik ez dugu bakoitzak bere ingurua pixka bat astintzen? Kazetaritza independentean sinesten dugu, eta kazetaritza independentea egiten jarraitzeko ekonomikoki independenteak izatea beharrezkoa da. Ahalik eta komunitate sendoena izateak bermatzen du ARGIA independente izatea. ■

Urtarrilaren 13ko astean jasoko duzu hurrengo astekaria. Hau da 2018ko azkena

ARGIA Jende estimatua: datozen bi asteetan ez duzu astekaririk jasoko. Mendeurrena ospatzeko zenbaki berezia egiten ariko gara. Etxean urtarrilaren 13ko asteen jasoko duzu ehun orriko ale hori. Eskerrik asko, zuri esker ere urte biribil hori ospatzera iritsiko garelako elkarrekin.

ARGIA Durangon: kronika argazkitan



Iraide eta Gorka abadiñotarrek ere eraman dute #inorezdailegala kamiseta. Santutxun, klasean landu dute gaia eta bazuten Mbolo elkarte eta @argia-ren ekimenaren berri.



Jon ere #ArgiaJendea da. Gertuko senide bat Derioko seminarioko borrokan ibili zen; 50 urtera Gogor biniloa jaso du.

UTZI BAKEAN **STRAND** LIBURU-DENDA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

New York, 1927. Benjamin Bass izeneko etorkin lituaniarrak liburu-denda bat ireki zuen Fourth Avenuen, aurreztutako 300 dolar eta maileguan hartutako beste 300 erabilita, eta Strand jarri zion izena, Londresko kalea gogoan. Etorbidea liburu-dendaz josita zegoen -48 zeuden garai hartan-, baina 1930eko hamarkadan askok ateak itxi behar izan zituzten Depresio Handiaren eraginez, eta 1950eko hamarkadako alokairuen prezioen igoera ere jipoi handia izan zen beste askorentzat. Bassek aurretik beste liburu-denda bat zabaldu zuen, baina porrot egin zuen. Eta bigarren proiektuaren hasieran liburu-dendan bertan lo egin behar izan zuen. Hala ere, Strandek aurrera egin zuen eta bigarren eskuko munduko liburu-dendarik handiena bihurtuko zen.

Bassen seme Fred 13 urte zituela hasi zen aitaren dendan lanean. 1956an bere esku geratu zen negozioa eta hurrengo urtean egungo egoitzara eraman zuen denda, East 12th Street eta Broadway arteko kantoiera. Berehala lehen solairu osoa hartuko zuen; egun, dendak hiru solairu eta erdi hartzen ditu, solairu erdia bulegoetarako erabiltzen dute eta beste solairu oso bat biltegi moduan. Baina familia negozioa izaten jarraitzen du: Fred Bassek Nancy Bass Wyden alabaren eskutan utzi zuen liburu-denda iazko azaroan eta aurtengo urte hasieran hil zen.



BRIANNE SPERBER

New Yorkeko eraikin hau babesteko proposamena egin berri dute eta horrek arriskuan jarri du Strand, bigarren eskuko munduko liburu-dendarik handiena.

Lehen urteetan Strandek bigarren eskuko 70.000 liburu inguru zeuzkan, 1960ko hamarkadan 500.000ra iritsi zen eta egun 2.500.000 ale ditu salgai. Baina ekonomia digitalaren aroan, negozioaren mozkinak gero eta txikiagoak dira.

Liburu-denda ikonikoa dagoen eraikina 1902koa da eta, teoriarik, duen garrantzia arkitektonikoagatik berau babestea proposatu berri du LPCK -hiriko monumentu historikoak babesteko batzordeak-. Praktikan, hiriaren erdiguneko higiezinaren atzean arrazoi ilunagoak egon ohi dira eta eraikina babesteko proposamen hau Union Squaren eraiki nahi duten teknologia gune bati lotuta omen dago. Eraikina babesteko aitzakian, liburu-denda arriskuan jarriko lukete, mantenimendu eta burokrasia kostuak nabarmen egia-

go bailukete gora. Gainera, Amazonek -Stranden mehatxu nagusiak- egoitza berri bat zabalduko du Queens auzoko Long Island Cityn, eta horretarako instituzioek erraztasun handiak eman dizkiotela salatu dute bizilagunek.

Stranden eraikinaren bost solairuak alokatuko balituzte, bigarren eskuko liburuak saltzen baino askoz diru gehiago irabaziko lukete, baina horixe da Bass familiak egin nahi duena, liburuak saltzen jarraitu. Duela bi aste batzordearen aurrean hitz egin zuen Nancy Bassek: "Mesedez, ez ezazu Strand suntsitu burokrasia, beharrezkoak ez diren gastuak eta mugak erantsita. Amazonek ez bezala, ez dugu diru-laguntzarik edo tratamendu berezirik eskatzen, bakean utz gaitzela eskatzen dugu soilik". ■



Gerrak Eguberritako loteria bikoiztu zuen

Gerrak hainbat jarduera eten ohi ditu, baina Espainiako Gerra Zibilak ez zuen lortu 1811tik egiten den Eguberritako loteria geldiaraztea. Alderantziz, duela 80 urte, 1938ko abenduaren 22an loteria horren bi zozketa egin ziren, bando bakoitzak berea egitea erabaki zuelako. Zozketa errepublikarra Bartzelonako Ramblan egin zen, Lyon

D'Or kafetegian, eta Bartzelonan bertan saldutako 22.655 zenbakiak lortu zuen sari nagusia. Frankistek Burgo- sen egin zuten zozketa, 36.758 zenbakia atera zuten eta 4 milioi pezetako saria Malagara joan zen. Errepublikarren sari nagusia 3 milioi pezetakoa izan zen; horretan ere nazionalak izan ziren garaile. ■

Kubricken unibertsoak xehetasunetatik

Asko dira zinemaren historian mugarri diren Stanley Kubricken (1928-1999) filmak: *Spartacus*, *2001: A Space Odyssey*, *The Shining*, *A Clockwork Orange*... Mimos eta obsesioz zaindutako xehetasunekin eraikitako unibertso autonomo bana dago haietako bakoitzean. Xehetasun horiek eta Kubrick bera ezagutarazteko asmoa duen erakusketa antolatu dute Bartzelonan, CCCBn.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: CCCB-K UTZIAK

Hiri jendetsuek desitxuratu egiten dute kopuruen esanahia, eta hala ere, ezin harritzeari utzi. Poesia errezeitaldi lehiaketa bat dagoela entzun, eta jakin-minenez, CCCBko (Bartzelonako kultura garaikideko zentroko) satora bertaratu gara. 200 bat laguneko ilara topatu dugu sarrerako plazan. Ulertu ezinda, poesia entzutera etorri den galdetu diogu haiek bati. Ezetz hark; Stanley Kubrick-i eskainitako erakusketa ikusteko dagoela zain. “Koloretako kuboarena?” bota du lagunak. Grazia egin dit ateraldiak. “Ez, *A Clockwork Orange* filmaren egilea den zuzendariarena” erantzun diot, ia-ia lagunarenaren adinakoa den nire ezjakintasuna ezkututuz. Beste 300 entzulerekin batera poesia lehiaketa jarraitu ondoren bat etorri gara biak: bada gehiago jakiteko garaia.

Etxeko lanak egin eta informazioa pilatuta joan gara bigarrenez CCCBra. Londresko Stanley Kubrick artxiboko elementuekin osatua da erakusketa, eta munduko hainbat tokitan izan da ikusgai, hiri bakoitzean ikuspegi eta forma propioa eman badiote ere. Jordi Costa komisarioak antolatu du Bartzelonan bost hilabeterako jarri dutena. Hala dio erakusketa iragartzen duen oharrean: “Kubrick mundutik isolatuta bizi den gizon hotz gisa aurkeztu izan da, baina guk bere pasio sortzailean jarri dugu fokua. Berak ordezkutzen du, beste inork baino hobe, unibertso autonomo oso bat sortzeko ardura duen zuzendariaren figura”.

Zinegile baino lehen, argazkilari

Irizpide kronologikoaren arabera antolatu dute ibilbidea, eta bestela ezinenez, Kubricken lehen lanak ditu abiapuntu. Ez ikus-entzunezkoak ordea. Argazki kamera bat izan zen zuzendari estatubatuarren lehen lan-tresna. Bigarren hezkuntza amaitu aurretik hasi zen *Look* aldizkarian erreportajeak argitaratzen, eta lau urte egin zituen bertan argazkilari. Irudi haiek asko biltzen ditu erakusketak -boxeo lehiak, moda desfileak...-, baita ohitura bitxi baten frogak ere: karrete bakoitzeko azken argazkia gaur egun *selfie*-a deituko geniokeena egiteko erabiltzen zuen Kubrickek.

Ikusgai daude bere lehen ikus-entzunezko lanak. 1951koa da lehena: *Day of Fight*, boxeolari bati buruzko hamahiru minutuko dokumentala. Hurrengo bi filmetan ere ez zuen fikziora salto egin;

» Zine zuzendari izan aurretik Kubrickek argazkilari gisa egin zuen lan. Garai hartako irudiak ere badaude CCCBko erakusketan

» *Spartacus* filmarekin lortu zuen arrakasta gazi-gozoa izan zen Kubrickentzat: batetik, zuzentzera mugatu zen, filmeko beste atalen kontrolik gabe; bestetik, zentsuratu egin zuten zeharka homosexualitateaz hitz egiten zuen sekuentzia bat

» Hil zenean zuzendariak esku artean zeuzkan proiektuen artean, Napoleon Bonaparteri buruzko film bat egitea zegoen. Hari buruz Kubrickek pilatutako liburu eta dokumentazio ugari ikus daiteke Bartzelonan

Flying Padre eta *The Seafarers* –Marinelen Sindikatuaren enkarguz egina– dokumentalak dira halaber. Lehenengo fikziozko film luzea 1953an plazaratu zuen *Fear and Desire* da. Denera beste hamabi egin zituen gero.

Spartacus, mugarri gazi-gozoa

Aurretik beste hainbat lan pantailaratu bazituen ere, 1960an aurkeztutako *Spartacus* izan zen Kubricken ibilbidean inflexio puntua. Erakusketan bertan ere lan honen bueltako dokumentu eta azalpenekin hasten da egilearen luze ezagu-

nene banan-banako errebaso xehea. Kirk Douglas zen filmeko aktore nagusia eta ekoizlea, eta berak eman zion filma zuzentzeko aukera. *Paths of Glory* film zentsuratuan batera aritu zirelako ezagutzen zuten elkar. Douglasek Anthony Mann, hasierako zuzendaria, kaleratu eta Stanley Kubrickekin ordezkatu zuen, lehen aldiz, superproduktzio bat bere eskuetan utziz. Zentsurak mugatu zuen filma beste behin, zeharka homosexualitateaz hitz egiten zuen sekuentzia oso bat kendu behar izan baitzuten. Ez zen zati hori berreskuratu 1991ko berrargitalpenera arte.

Frankismo betean Espainiako Estatuaren eta bertako soldaduak extra gisa hartuta osatutako filmak arrakasta handia izan zuen, bai behintzat drama film onenari ematen zaion Urrezko Globo irabazteko adina. Erabat ezaguna egin zuen Kubrick eta aukera eman zion hurrengo proiektuak baliabide gehiagorekin gauzatzeko. Erakusketak ordea, zinegilearen frustrazioa azpimarratzen du: zuzentzera mugatu zen bere lana, gidoiari eta ekoizpenari berari eskua sartzetik gabe. Ez zen berriro errepikatuko: hurrengo lanetan bere autonomia aldarrikatuko zuen, bere gain hartuko zuen xehetasun guztiak zaintzeko ardura.

Fikzio idatzia abiapuntu

New Yorken jaiotako zinegilearen gairontzeko filmen errebasoarekin jarraitzen du erakusketak, haiek bakoitzeko gidoi, zirriborro, jantzi, *atrezzo* eta abarrekin. Horrenbeste informazioaren artean, nork bere intereseko ataletan jartzen du arreta: asko idatz daiteke musikak haren filmografian duen paperaz, baina idatzizko fikzioak duen garrantziari erreparatu diogu guk. Eleberri edo ipuin-liburu batetik abiatutakoak dira Kubricken lan gehientsuenak. Anthony Burgessen *A Clockwork Orange* da haiek bati, Ion Olanok euskaratuta Meettok argitaletxeak plazaratu berri duena. Izen berarekin, maisutasunez eraman zuen pantailara Kubrickek, mundu distopiko liluragarri bat eraiki eta gogoangarriak diren dozenaka eszena utzita. Bitxikeria gisa, filmean Alex eta bere druguek darabilten nadsat hizkeraren hiztegia ikus daiteke erakusketan.

Vladimir Nabokoven *Lolita* eleberri polemikoa zinemara eramaten ere ausartu zen. Nabokov-ek berak egokitu zuen gidoiaren lehen bertsioa dago



CCCBn ikusgai. 400 orrialde zituen, ia zazpi orduko film baterako adina. Era-ginkorragoa izango zelakoan, azkenean elkarlana eten eta zinegileak berak egokitu zuen gidoia. Idazle errusiarra ez zuen erabat asetu: "Film zoragarria egin du Kubrickek, baina berak eta nik modu desberdinean ikusten dugu *Lolita*".

Jack Nicholson protagonista duen *The Shining* filma berdin: Stephen Kingen izen bereko eleberrian dago oinarritua, gidoia egokitzean hainbat aldaketa egin zituen arren. Filmak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko ere jotzen zuen hizkuntza hori menperatzen zuten idazleengana. Horrek erakusten du dena kontrolpean izateko Kubrickeen ahalegina: ekoizpena, castinga, efektu bereziak, banaketa, baita bikoizketa ere.

Zientzia fikzioan aitzindari

Erakusketan beste film guztien artean gehien nabarmentzen dena 50 urte bete berri dituen *2001: A Space Odyssey* da; ziur asko, hura delako unibertso imaginario oso bat eraikitzeke hartutako lana modu agerikoenean erakusten duena. Arthur C. Clarke idazlearen *The Sentinel* narrazio laburrean oinarritutako lana

da, idazlearekin elkarlanean egokitutakoa. Bidaia interplanetarioak eta etorkizun urrunak eraikitzeke, pertsonaien janzteko modua, arkitektura eta aurre-rapen teknologiko andana ia hutsetik diseinatu behar izan zituen Kubrickek eta tokia egin ordura arte ia ikusi gabeko efektu bereziei. *Star Wars*, *Alien* edo *Blade Runner* gisako filmentzat ezinbesteko inspirazio iturria izan zen.

Filmaren ezaugarri deigarrienetako bat lau milioi urteko denbora saltoa da, lehen hominidoen garaitik 2001era arte doana. Hasierako zati horretako simioen eszenak prestatzeko mimo talde bat kontratatu zuen Kubrickek, eta garairako oso errealistak ziruditen mo-zorroak prestatu. Hilabetez egon zen talde osoa Londresko zooko gorila eta txinpantzeen mugimenduak aztertzen. Ken Adam Holandes ezenografoa lagun, eszenatoki bereziki deigarriak ere erabili zituzten filmaren bigarren zatian. Erakusketan nola sortu zituzten ikus daiteke. Geltoki espazialean dagoen pasabide zentrifugoa da adibide onena: hamabi metroko diametroko dekoratua 4,8 kilometro-orduko abiaduran egiten zuen bira, kameraren mugimendua

baimendu eta grabitate ezaren efektua sortuz. Wendy Carlos musika elektronikoren aitzindariaren lana ere txalotzen du erakusketak. *2001: A Space Odyssey* filmeko soinu-bandaren pieza asko berak egin zituen.

Bukatu gabeko lana

70 urte zituela zendu zen Stanley Kubrick 1998an, hamahiru film luze zuzenduta baina hainbat asmo eta buruzazio gauzatu gabe utzita. Zinegilearen proiektu amaitugabeen zirriborroak dira erakusketaren epilogoa. *A.I. Artificial Intelligence* da haietako bat, urte batzuk geroago Steven Spielbergek pantailara eraman zuena; baita Louis Begleyren *Wartime Lies* eleberria zinemara eramateko saiakera ere.

Deigarriena, ordea, Napoleoni buruzko filma egiteko osatutako liburutegia da, zientzako liburu, garaiko artxiboak eta hainbat irudi biltzen dituen. Kubrickek jasotako material horretatik abiatuta, HBO telesail labur bat ari da ekoizten. Hori dena jakinda egin dugu etxerako bidea. Bigarren buelta bat egiteko itzuliko gara: bi aldiz joateko aukera dago sarrera bakarrarekin. ■

ARITZ ARANBURU, ARROTZAK TALDEKO KIDEA

“Guretzat arrakasta da jendearekin konektatzea”

Bere kabuz ikasi du gitarra jotzen; musika bizitzeko eta erlazionatzeko modu baten adierazpide gisa ulertzen du, ez hartatik bizitzekoa.

Oki Moki eta Arrotzak taldeetako kidea da, eta egungo gitarra jotzaile intuitibo eta zorrotzenetakoa.



Gorka Erostarbe

@gerostarbe1

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Abuztuaren erdialdera Bandcamp plataforman jarri zuten entzungai *Lurzoru hotzetik* bigarren diskoa. Aste horretan aurkeztutako zazpi diskorik interesgarrienen artean sartu zuen plataformak berak. Taldeak ez du ia beste inolako marketin beharrik izan. Sare sozialik ere ez du taldeak berak. Ahoz ahokoa dute zabalkunde tresna. Hilabete honetan jarri dute salgai diskoa formatu fisikoan.

Kostaldekua izanik, eta izen horrekin, sekula nahastu zaituzte surfariarekin?

Bai, askotan, eta gainera adin berekoak gara. Bera zarauztarra, ni getariarra. Gogoratzen naiz Messengerraren garaian jende asko batzen zitzaidala, profila begiratu eta askok izaten zuten surfarekin loturiko zerbait. Orduan ulertzen nuen kontua. Gero, Bartzelonan bizi izan nintzenez ere askotan galdetzen zidaten: “Hi al haiz surfaria?”. Eta nik; “Ez, ez, sentitzen diat, baina ez nauk ni!”.

Gitarra irakaslerik sekula ez?

Ez, beti etxean ikasi dut. Gaztetxotan solfeo klaseetara joan nintzen, gurasoen eraginez. Askori kosta egiten zaio ulertzea, oraindik ere, gauzen esentziara joan litekeela ikasketa akademikorik gabe.

Zein ziren zure erreferente musikalak gaztetxotan?

Batetik 80ko hamarkadako euskal punkaren eragina ezinbestean jaso genuen; RIP, Eskorbuto... Baina gero gure garai-koek harrapatu gintuzten, punk oinarriko horretatik ateratzen zirenak: Dut, Lisabö... Gure muga izugarriekin haiek bezala jotzen saiatzen ginen. Gaztea zara, belaki bat bezala jasotzen duzu dena.

Diseinuak ala musikak deitu zuen zure arreta lehenago?

Biek ere nahiko elkarrekin egin dute bidea nigan. Internet aurreko garaian korreoz erosten genituen kaseteak, CD-ak... eta objektua esku artean izateak garrantzi handia zuen. Emozionalki beste kontu bat zen, eta horretan diseinuak eragin handia zuen, azalak, letrak irakurtzeak, objektua ukitzeak... Nahiz eta kontziente ez izan, alde bisualak, grafikoak zein ukimenak garrantzia zuen, eta pixkanaka jaso egiten duzu hori dena. Baina aurrena musika izan zen, eta horrekin lotuta diseinua.

Oki Mokirekin, harrera ona lortu zenuten iaz. Dezente mugitu zineten. Aurten Arrotzak-ekin bigarren lana atera duzue, *Lurzoru hotzetik*. Ahoz ahokoak funtzionatzen du zuen kasuan?

Hala ematen du. Gure funtzionatzeko modua hori da, pretentsio asko gabe ibiltzekoa. Zerbait zintzoa egitea: ez dugu inoiz bilatu publiko masibo batengana iristea, edo arrakasta komertziala izatea. Askorik bilatu gabe, eta ahoz ahokoaren bidez, kontzertuak lortu izan ditugu, bai Oki Mokirekin, baita Arrotzak taldearekin ere. Orain artean ez dugu gehiagoren beharrik izan.

Zintzotasun hitza aipatu duzu. Hori eskatzen diozu musika talde bati?

Bai, gure parametroetan mugitzen diren taldeei bai. Ulertzen dut zenbait talderentzat musika ogibidea dela, eta alde batera edo bestera jo behar izatea. Bakoi-tzak bere bidea hartzea dauka, baina ni ibiltzen naizen zirkuluetan, zintzotasuna ezinbestekoa da.

Oki Mokik eta Arrotzakek, euren desberdinean, punk oinarria dute komunean; tonuan eta intentsitatean desberdintasuna?

Oinarria uste dut oso antzekoa dutela, eta oinarri soil eta simple samarra da. Horretan, paradoxikoki, zerikusia izan dezake oso gaztetatik Getariako gaztetxean ikusitako musika esperimentalak. Gauza desberdin asko jaso dugu: gogoratzen dut 16 urte nituela, neguko asteazken batean, Japoniako talde bat, guztiak



untxiz mozorrotuta performance musika egiten, adibidez. Eta, agian horregatik, nik musika egiterakoan kontrara jodut, oso oinarritzko egituretara. Iruditzen zait joera dudala esentzia bilatzekoa.

Baita melodia bilatzekoa ere, nahiz izan modu garratz batean...

Bai, Arrotzak egiteko elkartu ginenean, bakoitza gauza desberdin batetik gendozen eta laurok geneukan zerbait oinarritzkoagora itzultzeko gogoia, gaztetatik hunkitzen gintuzten egitura sinpleago horietara. Zerbait zuzenagoa bilatu nahi genuen. Arrotzak-ek badu melodia, baina erraietakoagoa da, eguneroko gauzetatik oka egitea bezalako zerbait da.

70eko hamarkadako eta 80etako hasierako *do it yourself* filosofiarekin eta punkarekin alderatuta zer ezaugarri du egungoak?

Egun Internetek duen inpaktuak gauza asko aldatu du. Nik esentzia beretsua ikusten diot. Hala ere, uste dut Euskal Herrian adibidez, 80ko hamarkadako punk taldeek bilatzen zutela nolabait arrakasta komertziala. *Do it yourself*-i beharrean, esango nuke *homemade* filosofiari jarraitzen ziotela. Bakoitzak bere lokalean grabatzen zuen lehen lana, ez zutelako beste ezer, baina *do it yourself*-a niretzat gehiago da gauzak uler-

tzeko modu bat: "Ez dugu horra ailegatu nahi" esateko modu bat; osotasun batean ulertzea musika eta musika egiteko modua. Eta arrakastak ez du batere inporta.

Zuek horrela ulertzen duzue musika?

Bai, bai... Musika guretzat da bizirik sentitzeko modu bat, ez hartaz bizitzekoa. Jendearekin komunikatzeko eta konektatzeko modu bat da, modu gizatiar batean alegia, eta ez arrakastaren lainoetan pentsatzekoa. Alegia, guretzat arrakasta da jendea ezagutzea, jendearekin konektatzea. Zuk egiten duzunarekin disfrutatuta egiten duen jendea ezagutzea izugarria da.

Zuen izenari jaramon eginez, arrotz sentitzen zarete Euskal Herriko musikaren ingurumarian?

Arrotz ez gara sentitzen, baina ikusten da talde bakoitza bere bidetik doala. Izena etorri zen taldeko lau kideok gure bizitza herritik kanpo egitetik gendozelako; herrira bueltatu ginen eta halaxe jarri genion izena taldeari.

***Underground* hitzak zer esanahi dauka gaur egun. Badu esanahirik?**

Hitz hori oso xahutua ikusten dut. Ikusten dut trapean dabilen zenbait gaz-

te, multinazionalak xurgatutako jaialdi handietan arrakasta komertzial bila dabilela, eta guztiek erabiltzen dute hitz madarikatu hori... eta ez dakit zer pentsatu. Oso desbirtuatua, nahasia ikusten dut, beste mundu batetik datorren jendeak nola darabilen ikusita.

Getariako gaztetxea zer izan da zuretzat?

Burua ireki eta lehertu zaidan lekua izan da. Azken hamabost bat urtean 300-400 taldetik gora izan dira hor, eta denetariakoak, leku, estilo, formazio oso desberdinetakoak. Eskola handi bat. Aurreiritzi asko gairatzen joan garen lekua da gaztetxea. Eta gauzak egiteko modu bat ikasi duguna.

Adibidez?

Adibidez umiltasuna erakutsi digute kanpotik etorri diren talde askok. Gurekin afaldu gaztetxean, eta norberak bere platera jaso eta garbitu izan duenean, adibidez. Kontrakoa gertatu izan baitzaigu: hemengo zenbait talderi kontzertuak antolatu eta gero haien jarrera oso bestelakoa izatea, kexak jasotzea. Umiltasuna eta egoa apaltzen ikasi dugu. "Ez naiz inor baino gehiago, eta ez daukat ezer demostratu beharrik". Dena denon artean egiten dugu. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ideen ping-ponga



Amaia Alvarez Uría

Duela urte eta erdi sortu zen euskarazko liburu elektronikoak dohainik eskaintzen dituen Booktegi.eus plataforma digitala, eta bertan topatuko duzue aste honetako liburua: Lutxo Egiak idatzitako *Identitarreak* antzezlan. Galder Perez eta Ane Zabalaren hitzaurrea du 2016an Kafe Bar Bilbao eta Tartean antzerki taldeak ematen dituen Teatro laburreko gidioen XIV. saria irabazi zuen lan honek. Bere egileak horrela deskribatzen du: "Identitatei buruzko antzezlan da, klabe surrealistan idatzita dago eta komikotasun handikoa da. Aro likidoan bizi gara, baina identitate esentzialistak ere gure artean daude, pentsa baino gehiago".

Lutxo Egiak 2015ean *Transitoak: bi-lingual* performancea egin zuen eta hizkuntza identitateari buruzko gogoeta egiteko aprobeztatu zuen orduan. Horren ondoren etorri ziren hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzeko egitasmo zenbait, besteak beste, amaitu berri den Euskaraldia. Horren harira idatzi zuen mintzagai dugun *Identitarreak* 2016an, eta 2018an argitaratu du. Bitartean, 2017an, identitatearen inguruko bigarren performance bat abiatu zuen: *Transitoak: Haren da Nire*. Honen emaitza laster jasoko dugu nobela labur batean, egilearen arabera.

Bi pertsonaia topatuko ditugu elkarrekin lehian, badminton partida bat jokatzeko. Elkarri hitzak botako dizkiote eta hala elkarriketa filosofikoak onduko dituzte. Hitzok ideiak ekarriko dituzte, mundu ikuskerak,

Identitarreak

LUTXO EGIA

Booktegi.eus, 2018



Lutxo Egiak Del Rio idazlea (1969, Santander).



euskal jendartearen aniztasuna irudikatzen saiatuko direnak.

Sorkuntza lanek bibliografia balute, batzuei irakurketa erraztuko litzaieke, beste batzuei ordea testuartekotasunaren jolasa eragotziko lieke. Testuan irakur daiteke "egiten duguna gara" edo "egia bakarra da praktika hutsak daudela", baina teoriko, pentsalari eta sortzaile askorengandik edan du lan hau burutzeko: J. Derrida, B. Anderson, Z. Bauman, J. Butler, D. Haraway, E. Ionesco, P. Telleria, edo B. Atxaga, adibidez.

Topiko eta metafora zenbait ipintzen ditu aurrez aurre bi pertsonaia horien bidez, euskal komunitatea eta bertako partaideak nor diren jakin nahian. Helburua "beste sentitzea" da, auzitan ipintzea ezagutzen duguna, egia zein den jakitea, eta umore absurdoaren laguntzarekin gure buruei barre egitea. Ea laster taula gainean kontzeptuok haragiztatuta ikusteko aukera dugun. ■

» DISKOA

Estali ezineko melodiatzarrak



Iker Barandiaran
@ikerBarandiara

Jon Basagurenek ahots propioa dauka eta hori ezin da ezbaian jarri: ahots tonalitate malenkoniatsu bezain sinesgarria, melodia borobilak egiteko gaitasuna, euskaraz zein ingelesez abesteko dikzio dotorea, eta abestiak janzteko gustu oso ona.

Neil Youngen kantuak zuzenean bakarka plazaratzen ezagutu nuen Basaguren; eta zinez gustura egiten zuela transmititu zuen. Garai parekoan bere kantuak taldean musikatzeko sortutako Izaki Gardenak-en lehen diskoa eskuratu nuen eta sorpresa ederra hartu han aurkitutako melodia eta kanta borobilekin. Harrapatu ninduen! Disko hark buelta ugari eman zituen autoan egindako joan-etorrietan.

Handik gutxira, bigarren diskoa gogoz eskuratu nuen baina –aitortu behar dut– une hartan hotz utzi ninduen. Ez nuen sentsazio bera izan, eta nonbait gorde nuen lana –gaur da eguna berreskuratu nahi dudana–. Agian ez zen momentua; baina diskoak eta kantak hor daude; gerora ere berreskuratu eta entzuteko, ezta?

Orain, taldearen itzulera honetan *Dena oskol* lan berria asko disfrutatzen ari naiz. Paradoxikoki lana zabaltzen duen *Haiek gu-n* Neil Youngen arimak egin dit harrera eta hainbestetan ahotan dagoen *americana* zeharkatuta pop psikodelikoan murgildu nau, sakona eta barnerakoia, ia mantra, oso gustukoa. *Dena oskol*-ek gorputz sendoagoa dauka: a ze banda soinua, energiadun pop-rocka, dotorea. *Burdin jantzia*-k, berriz, intro intrigazkoagoa dauka (Cave itzalean) eta oinarri errepikakor eta gitarra gardenekin TSOOLen giroak erdiesteko

Dena oskol

IZAKI GARDENAK

Erraia, 2018



gai da. *Ekaitzen arrazoien bila* gorputz rockeroagoa duen poesia da, hazten dena. *Etor-kizuna* garaje-sixties kutsu nabaria daukan pop-a. *Zutzean* poparen gardentasunez eta psikodeliaz blai eginda dago. *Azalak ezin hartu* pop gardena da, artifiziorik gabekoa. Eta *Irten* piezak Izaki Gardenak-en patroi edo marka dauka, ezkutaezina.

Boskote honek folk-pop edo *americana* egiten dutela diote askok, nik ordea pop-rock orkestra hurbilago ikusten dut, abestiak erakitzerakoan sortzen dituzten ñabardurengatik, janzkerengatik eta musikari eskarmentudun (Same Old, Sorkun, Ortophonk, Tom Tom Makuts...) hauek lortzen duten emaitza trinkoagatik. ■

Izaki Gardenak
boskotea,
Jon Basaguren
erdikoa izaki.





BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA

Noiz: abenduaren 15ean.

Non: Bilboko Bilbao Arenan.

Finalean aritu diren bertsolariak eta puntuak:

Onintza Enbeita Maguregi 843,5

Etxahun Lekue Etxebarria 814,5

Xabat Gallettebeitia Abaroa 493

Jone Uriá Albizuri 489

Nerea Ibarzabal Salegi 489

Miren Amuriza Plaza 486,5

Eneko Abasolo Txabarri *Abarkas* 463,5

Aitor Bizkarra Ruiz 461,5

Onintza Enbeita txapeldun



Dabi Piedra

ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Enbeitatarren sokak ez du etenik Bizkaiko Txapelketan. 1958 eta 1959an Balendin Enbeitak, *Urretxindorra* handiaren semeak irabazi zituen lehenengo bi edizioak. 1990 eta 1992an, Jon Enbeitarentzat izan zen txapela. Eta 2018an, hurrengo belaunaldiak hartu du lekukoa, Onintza Enbeitaren lan bikainari esker. Familiakoak gogoan hartu zituen azken agurrean, “*Zuen altzoan egin naz, ni neska bat ahalduna*”.

Bertsolaritza etxetik dakar Onintza Enbeitak, belaunaldiz belaunaldi ondutako formulari diluituta. Oholtza gainean, alabaina, norbanakoak eman behar dio hauspoa transmisioaren suari. Miribillako finalean, abizenaren pisurik gabeko Onintza entzun genuen, bere-berea duen estiloa gorenera eramanez. Txapeldunak saioaren ondoren onartu zuenez, gaiak neurri-neurrikoak etorri zitzaizkion, “kosmosa” bere alde jarri izan balitz bezala.

“Zorotzat hartu zaitue danek, baina bardin deutsu” zen bakarkako gaia bu-

ruz burukoan. Benetako Onintza ere halakoxea da ia-ia, berak onartu zuenez. Natural kantatu zuen, puntuak pilatu eta publikoa berotzeko: “*Baina nik nori eskatu behar, deusat ba orain baime-na/ Neure barrutik atera nahi dot, behinola izan nintzena*”. Seiko motzean ere ederto aritu zen muxikarra, gaiari zukua ateratzen, kideari erantzuten eta ideia zorrotzak plazaratzen. Etxahun Lekue bigarrena, aldiz, beste batzuetan baino irregularrago aritu zen, ezin distira eginda.

Final parekatua izan zen, pronostikoek ere hala iragarria zuten. Onintza Enbeita eta Etxahun Lekue heldu ziren buruz burukora, baina besteak ez ziren urrun geratu. Izenak baino, zortzikotea nabarmentzea litzateke bidezkoena. Hirugarren Xabat Gallettebeitia izan zen, beti bezala dotore eta original. Laugarren eta bosgarren lekuan berdinduta amaitu zuten Jone Uriak eta Nerea Ibarzabalek. Goiko postuetan ibiltzea zuten helburu, baina koska bat falta izan zi-

tzaien. Miren Amuriza ere gehiagorako gai da, baina ariketa batzuetan onenen pare jardun zuen, adibidez hamarreko txikian.

Aparteko aipamena merezi dute Eneko Abasolo *Abarkasek* eta Aitor Bizkarrak. Azken unean sartu ziren finalean, iurretarra 2010etik zegoen finalaurreetatik pasa ezinda, eta Bizkarrak lehenengo finala zuen. Zazpigarren eta zortzigarren izan ziren, baina, hala ere, publikoak haien bertsoetako batzuk txalotu zituen gehien. Finalen kalitatea ez dute irabazleek soilik ezartzen. Lehe-na bezala zortzigarrena ere nabarmenduz gero, orduan gozatzen du zaleak.

Final parekatua ez ezik, final parekidea ere izan zen Bilbokoa, laugarren aldiz jarraian. Oraingoan bai, emakume batek jantzi zuen Bizkaiko txapela. Jon Enbeita osabak jantzi zion, gainera. Gutxienez bi urtez izango da Onintza txapeldun, eta jasotako maitasun guztia plazaz plaza bueltatzen ahaleginduko dela agindu zuen. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Miren Artetxek 2002an Erreterian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrek*
Gaia: Gabon gaua duzu, eta mahaiaren inguruan bildu zarete urtero bezala familia giroan ospatzeko asmoz. Mahaiaren inguruan aulki huts bat jarri duzue.

Zure hitz denen zorroztasuna
eta _____ kamutsa...
Betitik nauzu nire bidean
aurrerantz gogorki _____
Eta zu zinen _____ dena
lotu ohi zuen funtsa
zu zinen gure ehun bakarra
zu zinen guztion _____
ta gaur bezala egun honetan
ezin da bete zure _____.

Ezin ditugu gure tristurak
afari honetan ito
zure omenez _____ gara
hemen neska ta _____
Oroitzapena daukagu hurbil
ta bizia urrutiko.
Denok _____ joan zarela
ta ez zarela _____
baina mahaiaren eserleku bat
izango duzu _____.

Minbizi batek _____ zaitu
gure Jainkoarengana.
Bide beretik _____ bihotza
tristura batek darama.
Zuri zor dizut orain naizena
nere izen ta _____
ta betirako eramango dut
zure oroimenaren _____
Beharbada ez nizun sobera esan
baina _____ zaitut ama.



F	G	E	F	U	J	N	E	P	E	B	B	F	T	B
C	J	N	F	A	M	I	L	I	R	U	L	B	M	G
P	I	U	H	M	E	I	G	M	U	T	I	K	O	M
E	D	E	B	N	R	R	U	T	R	A	K	L	E	I
J	N	D	A	A	E	B	N	E	Z	D	I	L	I	N
E	H	R	S	F	N	E	C	M	A	G	D	R	O	A
I	H	T	O	F	J	T	Z	I	S	N	M	L	L	R
E	U	E	K	R	H	O	U	D	C	P	A	H	E	E
H	O	E	I	H	R	R	N	J	H	I	N	Z	L	N
B	N	M	T	E	H	R	T	J	T	H	R	H	I	O
J	E	E	E	V	C	I	Z	E	D	A	N	J	T	D
R	I	R	B	A	Z	K	A	Z	T	L	U	B	V	T
S	E	B	A	A	U	O	A	E	P	D	G	F	H	P
B	B	H	M	M	O	M	G	U	G	I	K	A	D	C
P	S	P	M	G	A	A	H	P	P	S	L	H	P	V
G	J	A	T	Z	O	N	H	A	H	F	I	V	N	F

Sudokua

Erraza

				2	6			1
6	1	9		7		4		
2					1		8	
			1	7	5			
	3	4	6		9	7	1	
		6	2		3			
	5		8					7
		3		1		2	5	8
7			3	9				

Zaila

			4		6			
		6		8			7	
8	2			9				1
	8				4			6
	5	7				4	2	
3			6				8	
7				6			5	3
	6			4		8		
			1		9			

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



Urruty-64 - Peio Diban

atzikia. 7. ... Estiballes, Galdakaoko bertsolaria. 8. Adore emateko erabiltzen den hitza. Pertsona-multzo handia.

Goitik behera:

1. Ateratzea, joatea.
2. Bere espeziean, handiena.
3. Erara. Musika estilo.
4. Neodimioaren sinboloa. Gorrotoa, ezinikusia.
5. Guztiz, osoro.
6. Ezik. Amerizioaren sinboloa.
7. Izaera edo zentzu egoki. Harremana, erlazioa.
8. Ilunabar, ilusenti.
9. Sega zorrozteko zorroztarria.

Ezker-eskuin:

1. Otoitz bukaeran. Esnatu aditzaren infinitiboa.
2. Lapurdiko udalerrria (**argazkian**).
3. Letra izena. Gizona emaztearekiko.
4. Lapurdiko udalerrria. Jainko egiptoarra.
5. Tuloioen sinboloa. Sabelean umekia duela, haurdun.
6. Parasito izena. Norat

Ebazpenak


Zure hitz denen zorroztasuna/eta minaren kamutsa.../Betitik nauzu nire bidean/aurrerantz gogorki **bitza**/Eta zu zinen **familia** dena/lotu ohi zuen funtsa/zu zinen gure ehun bakarra/zu zinen guztion **zauza**/ta gaur bezala egun honetan/ezin da bete zure **hutsa**./Ezin ditugu gure tristurak/afari honetan/ito/zure omenez **ekarri** gure/hemen neska ta **nutiko**./Oroitzapena daukagu hurbil/ta bizia urrutiko./Denok **dakigu** joan zarela/ta ez zarela **eborriko**/baina mahaiaren eserleku bat/izango duzu **betiko**./Minbizi batek **graman** zaitu/gure Jainkoarengana./Bide beretik **nere** bihotza/tristura batek darama./Zuri zor dizut orain naizena/nere izen ta **izana**/ta betirako eramango dituz zure oroimenaren **zama**./Beharbada ez nizun sobera esan/baina **maite** zaitut ama.

2	3	8	1	5	1	8	2	3	7
6	6	6	5	7	4	3	8	1	2
3	3	4	4	8	6	2	9	5	3
9	6	3	4	3	1	8	4	2	9
6	3	6	7	4	5	3	4	4	1
8	8	1	8	2	6	7	6	4	1
4	7	4	9	6	6	1	3	7	5
8	5	7	4	3	6	2	6	2	8

7	2	8	3	3	9	5	1	6	4
6	6	3	7	1	4	4	2	5	8
4	5	1	8	6	2	3	9	7	7
1	7	6	2	3	8	4	4	9	9
5	3	4	6	8	9	7	1	2	2
8	9	2	1	4	7	5	3	6	6
2	4	7	9	3	1	6	8	5	5
6	1	9	5	7	8	4	2	3	3
3	8	5	4	2	6	9	7	1	1

Esker-eskuin: 1. Amen, Etsa, Arratza. Am, 7. Sen, Arta, 8. Arrats, 9. Nd, Herra, 5. Osork, 6. Ezean, 2. Maximo, 3. Eran, Kap, 4. **Goitik behera:** 1. Abiltzea, Masa. Zorri, Fat, 7. Arkatz, 8. Aupa. Anhoba, Ra, 5. Tm, Ernart, 6. 2. Bardoze, 3. Ixa, Senar, 4. 1. Amen, Etsa, Arratza.

Clara Peya. Esentzia ikur



DOROTHEE ELFRIN

Aktibista, sortzailea, pianista eta konpositorea da Clara Peya (Palafrugell, Herrialde Katalanak, 1986). Piano ikasketetan graduatua, hamabi urtez Leonid Sintsev izan du irakasle eta, 32 urte izanik, zortzi disko publikatu ditu, dagoeneko. Musikaz haratago, Inpuxibles antzerki konpainia abian du.

“Paritateak derrigorrezkoa izan behar du kulturari”



Saioa Baleztena
@SaioB

Pianoa terapia

“Gauzak esateko beharragatik sortzen dut. Terapeutikoa da. Sentimenduak eta emozioak nonbait iraultzeko beharraren ondorioz, musikaren bitartez lortu dut inspirazio iturria. Ez dut bilatzen, behar dut, besterik gabe. Nire buruari entzun eta kasu eginez topatu dut nire espazioa musikagintzan. Musika ikasketetan murgildu nintzenean sentazioa nuelako, beti, musika berdin irakasten zigutela denei. Sekulako akatsa da hori, bakoitzak behar eta talentu desberdinak ditugun heinean. Denbora luzez musika asko entzun nuen, estilo guztietan murgildu nintzen, eta egun batean konturatu nintzen ni desberdintzen ninduen gauza bakarra zela, horixe, ni izatea.”

Musikaren munduan emakumea izatea zaila dela erraten duzu. Zergatik?

Orokorrean gizarte honetan zailagoa delako emakumea izatea. Argi dago kondizioak ez direla berdinak, eta musikan ere, hainbat eta hainbat dira topatzen ditugun mugak. Hasteko, musika ikasketak gauzatu nituenean, ez nuen sekula emakumezko erreferenterik izan, eta urte askotan, gizonezkoen piezak jotzen aritu nintzen. Agertokietan ere, ikusten nituen artisten %90a gizonezkoak ziren. Abeslariaren zeregina beti egon da okerrago baloratuta eta, hor bai, emakumezkoen bat ikusi zitekeen, musikarekin baino, estetikarekin lotutako perfila zelako.

Emakumea bakarrik ez, aktibista izateak zenbateraino zaildu du zure ibilbidea?

Ate asko itxi zaizkit, baina, bertze horrenbeste ireki. Tira, bizi garen gizarte honetan jendeak isilik egon nahi du, programatzaileak ez baitira konprometitzen. Edozein modutan, erantzun desberdinak jaso izan ditut nik, orokorrean, eta oso gogorra naizen arren, nire dis-

kurtso musikalarekin jende askok konektatzen du.

Datuak kezagarriak dira: Espainiako Estatuan salmentarik handiena duten kontzertuen %80an ez dago emakumerik, artista nagusi gisa. Zergatik?

Historikoki gizonezkoek aukera gehiago izan dituztenez, ikusgarritasun handiagoa dutelako gaur egun. Beraz, programatzaileen arduraren aretoak bete eta dirua egitea bada, errazagoa izango dute gizonez osatutako Txarango, Manel, Els Amics de les Arts edo beste hainbeste talde kontratatuta. Kulturalki emakumeoi ez gaituzte ohitu geure burua saldu, geurekiko konfiantza izan eta sortzaileak izatera eta, argi dago, gauzak aldatzen ari diren arren, eta emakume ahaltsu asko dagoen arren musikagintzan, programatzaileek oraindik dirua lehenesten dutela generoaren ikuspuntua baztertuta.

Nola aldatu daiteke joera hori?

Kuoten bitartez. Paritateak derrigorrezkoa izan behar du, bai edo bai, kultu-



ran. Hori baita orain arteko dinamika aldatzeko modu bakarra. Bada garaia gizonetzkoek musikan duten pribilegio espazioan euren tokia uzteko emakumezkoiei. Eta gizonetzkoek osatutako talde horiek ez lukete onartu behar talde batean parte hartzea emakumezkoen ez dagoen bitartean.

Zailtasunak zailtasun, 32 urte dituzu eta, dagoeneko, zortzi disko publikatuta.

Zortzi disko atera badituzte izan da autofinantzatu dituzalako: baliabideak dituzte eta, zorionez, babestu nauen familia bat dut nire inguruan, nik ordaindu ahal izan ezean eurek ordainduko zuten. Are gehiago, beti azaltzen dut pianista naizela baliabide ekonomikoak dituen familia batean jaio naizelako. Eta nik piano ikasketak egin ahal izan badituzte da, zorionekoa izan naizelako eta ez dudalako kopak zerbitzatzen ibili behar izan. Ezinbestekoa da hori kontuan hartzea, jende guztiak ez baitu hau bere alde. Eta nire ibilbidean sormenari lehentasuna eman badiot, izan da, batez ere, baliabideak

“Berandu goaz, horregatik aldarrikatzen dut emakume menderaezinen protagonismoa, espazioak okupatu eta ausartak izan behar dugulako”.

egon direlako. Bestela ez litzateke posible izango.

Historikoki zizelkatuta egon diren esteerotipoak hautsi eta emakume menderaezinen figura aldarrikatzen duzu.

Gizarte patriarkalaren aldaketa ezinbestekoa da, eta, behingoz, desberdintasunak aberasten duela ulertzea, denontzako mundu bat eraikiz. Berandu goaz, horregatik aldarrikatzen dut emakume menderaezinen protagonismoa, espazioak okupatu eta ausartak izan behar dugulako. Eta bide honetan gizonetzkoek bidelagun izan behar dute, eurek ere espazioak libre utziz.

Urriari *Estomac* diskoa publikatu zenuen. Nolako izan da lan berriaren harrera?

Oso pozik nago sekulako erantzuna jaso dudalako. Genero ikuspegitik amodio

erromantikoa deseraikitzen duen bilduma da *Estomac*. Zortzi edo hamar bat kontzertu egin ditugu jadanik eta aurrerantzean ere beste horrenbeste egingo ditugu.

Zein dira zure erronkak aurrerantzean?

Musikan disko berri bat egiten ari naiz, urte eta erdi barru publikatuko dut, baina dagoeneko mamitzen ari naiz, goxo-goxo. Eta antzerkiari dagokionez, nire ahizparekin batera sortu nuen Inpuxibles antzerki konpainiaren bitartez aktibismo garbia egiten jarraitu nahi dut. Orain *Painball* izeneko ikuskizuna egiten ari gara, adierazpen askatasunaz diharduen kaleko ikuskizun interesgarria. Eta urtarrilaren 23tik otsailaren 3ra Bartzelonako Teatre Lliuren egongo gara *AÛC*, indarkeria sexualaren inguruan egin dugun ikuskizunarekin. Martxotik aurrera, azkenik, sufrimendu mentalaren inguruan sortu dugun *Suite Toc* ikuskizuna estreinatuko dugu Bartzelonako Beckett aretoan. Oso pozik nago ibilbide honetan. ■



Arnaldo Otegi salatatu du EH Bilduren egoitzatik EAJren aurkako argudioen karpeta lapurtu dutela

Aurrekontuetan jeltzaleekin adostasunik lortu ez dutenez, elkarren aurkako adierazpenak egiten hasi dira EAJ eta EH Bildu, baina ezkerreko subiranisten koalizioak problemak dauzka: desagertu egin da EAJren aurka azken hamarkadetan erabili izan dituzten argudioak jasotzen zituen karpeta. “Azken prentsaurrékoetan inprobisatu egin behar izan dut, baina karpeta hori agertzen ez bada zaila izango da gure jardun politikoa egikaritzea”, esplikatu du Otegi. “Lapurréta” hitza erabili du karpeta desagerpenaz hitz egiteko eta gaineratu du “autonomismoak herri honen burujabétza geldiezin oztapatzéko”



“Ostia, zer puzker usaina!”

ekimen berri baten aurrean gaudela. Ezker abertzaleko zenbait iturrik diotenez, urte askoan karpeta hori ireki ere ez zuten egiten, buruz zekizkitelako jeltzaleen aurka erabili beharreko esaldiak, baina azkenaldiko adostasun-giroaren ondoren, behar-beharrezkoa izango dela karpeta berreskuratzea.

SAREAN ARRANTZATUA

Jeltxaleta



Espriak ez du begirik



Txapela jantzi duen arte jende ugari ez zekien Onintza Enbeita bertsolaria zenik

Hamaika saltsatoko perrexila izateak hori dauka, jendeari ezinezkoa zaiola zure aurpegi guztiak ezagutzea. Fenomeno hori are nabarmenagoa da protagonista denean modako telebista aurkezlea, Onintza Enbeitari gertatzen zaion moduan. Politikari madrildarra eta Bruja Lolaren fan klubekoa zela bai, baina euskaldun askok arrastorik ere ez zuen bertso-tan aritzen dela eta, are gutxiago,

Bizkaiko jefa hura dela. Koldobike Motoreta bilbotarra da horietako bat. “Egiaz, txapela jantzita ikusi nuenean ere zalantzak izan nituen hasieran. ‘Zorionak cabaretera’ zioten txioek despistatu egin ninduten. Uste nuen irabazi zuela *performance* lehiaketa bat-edo. Txapelaren azpian *sevillana* jantzirik ikusi ez nuenean jabetu nintzen beste zerbait izango zela”.



Rocio Juradori eskaini dio txapela, ispirituekin duen konexio zuzenari esker.



SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Orexa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | kafetegia 07:00-17:00 | jatetxea 12:30-15:20

Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

ale bikoitza
izango da,
EHUN **URTE**
100 ORRI

irudi eta
DISEINU
BERRITUA

**MENDEU-
RRENA**
ZENBAKI
BEREZIAREKIN
**HASIKO
DUGU!**

Elkarrizketa,
erreportaje,
artikulu,
analisi eta
ilustrazio
bereziak

Azken
hamarkadetan
ARGIAko harpidedun
izan diren
milaka lagunei
ale bana bidaliko diegu,
katebegi izateagatik
eskertza
moduan.

Komunitate
konprometituari esker,
ARGIA
indartzen ari da
egunez
egun



#**ARGIA**k100urte

Informaziorik gabe
ez dago demokraziarik.

Bultza kazetaritza
independentea!

www.argia.eus/eginargiako